



Industrializazio Plana 2014-2016

EUSKADI  BASQUE COUNTRY

1. I. multzoa: Abiapuntuko oinarriak.....	2
1.1. Planaren arrazoiak eta aukerak	2
1.2. Plana egiteko metodologia	5
1.3. Erreferentziako testuinguru politikoa eta arau-testuingurua.....	7
1.3.1. Nazioarteko testuingurua – Europar Batasuna	7
1.3.2. Euskadiko testuingurua	11
1.3.3. 2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Plana ebaluatzea.	15
1.4. Euskadiko ekonomi eta industri koiuntura.....	18
1.4.1. Azterketa-esparrua	18
1.4.2. Nazioarteko ekonomi eta industria ingurunearen gakoak	19
1.4.3. Euskadiko industri koiunturaren diagnostikoa	24
1.4.4. Euskal industriaren lehiakortasunaren erronkak	33
2. II. multzoa: 2014-2016 aldiko Industrializazio Estrategia	36
2.1. Planaren printzipioak	36
2.2. Planak jorratutako esparruak	37
2.3. Planaren helburu estrategikoak.....	38
2.4. Ardatz estrategikoak eta jarduketa-ildoak	39
2.4.1. ETEen finantzaketa eta berregituraketa	40
2.4.2. Industria-proiektu estrategikoak bultzatzea	41
2.4.3. Industria aurreratua sendotzea	42
2.4.4. Lehiakortasuna ezaugarri duen industria- eta energia-inguruabarra sortzea	44
2.4.5. Pertsonen aldeko apustua	46
2.5. Ekonomia- eta aurrekontu-alderdiak	47
3. III. multzoa: Planaren gobernantza	49
3.1. Plana kudeatu eta koordinatzeko eredia	49
3.1.1. Planaren burutza	49
3.1.2. Sailen arteko harremana eta koordinazioa	49
3.1.3. Erakunde arteko koordinazioa	50
3.1.4. Ekonomia- eta gizarte-eragile garrantzitsuen partaidetza	51
3.2. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema	52
3.2.1. Jarraipen-dinamika	52
3.2.2. Aginte-taula estrategikoa	53
4. Eranskinak	54
4.1. “EUSKADI 2020” Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa	54
4.2. 2014-2016 aldiko Industrializazio Planarekin lotutako Planen sintesia.....	55
4.2.1. Enplegua Sustatzeko Programa 2014-2016	55
4.2.2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015	55
4.2.3. Euskadiko Enpresa-nazioartekotzeko Plana 2014-2016 (Basque Country Estrategia)	57
4.2.4. Lotutako beste plan batzuk	58
4.3. Bibliografia	59
4.3.1. Datu-baseak	59
4.3.2. Txostenak	59

1. I. multzoa: Abiapuntuko oinarriak

1.1. Planaren arrazoiak eta aukerak

Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldiko X. Legegintzaldiari ekin dio Euskadi dinamiko, moderno eta kohesionatu baten liderra izateko ilusioarekin. Helburu horrekin, Gobernu Programan oinarrizko 3 konpromiso hartzen ditu Euskal Gizartearen aurrean: Pertsonekin, Bakearekin eta Elkarbizitzarekin, eta Euskadirentzako Estatus Politiko berriarekin.

Pertsonekiko Konpromisoa Hazkunde Iraunkorren eta Giza Garapenaren aldeko konpromisoa da. Oso jakitun gaude zer-nolako zailtasunak bizi ditugun gaur egungo abagunean. Azken 30 urteotako krisialdi ekonomikorik txarrenetarikoa bat gainditzeko erronkari egin nahi diogu aurre, gure printzipio eta balioetatik abiatuta. Guztiz sinetsita gaude aurrera ateratzeko gai izango garela. Are sendoago, gainera. Pertsonen Euskadi bat eraikitzeko lan egingo dugu; gure apustua enplegua defendatzearen eta ekonomia berpiztearen aldekoa izango da, gizarte- eta ongizate-sisteman aurrera egiteari utzi gabe.

2013-2016 aldiko X. Legegintzaldiko Gobernu Programan Pertsonekiko Konpromisoa garatzen duten ardatzak eta jarduketak-eremuak



Iturria: Lehendakaritza

“EUSKADI 2020” **Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa** Eusko Jaurlaritzak enpleguarekin eta ekonomia berpiztearekin hartutako konpromisoa eman dien erantzuna da. Hainbat gauza barnean hartzen dituen programa da. Herri estrategia gisa taxutzen da, eta 2 multzotan garatzen eta zehazten da: **Enplegua Sustatzeko Plana** eta **Ekonomia Susperterako 4i Estrategia**.


4i estrategia apustu sendoa da, 5 urteko krisiaren ostean ahul dagoen enpresa-sareari arnasa ematearen alde, eta enpresa-ehun horri laguntzearen alde, etengabeko eboluzioan dagoen ingurune lehiakor bati egokitzeko prozesuan. Ez gara hutsetik abiatu, iraganeko une batzuetan krisi sakonak gainditzeko lagungarri izan zaigun gizarte- eta ekonomia-eredu propio baten funtsezko ezaugarrietan uste osoa daukagu. “Euskadi Eredu” hori gaur eguneratu eta optimizatu nahi dugu, erronka globalei aurre egiteko, gure autogobernuaren ahalmenetan oinarrituta.

Horregatik, 4i Estrategiarekin gure etorkizunaren ardura hartu dugu, eta gure sustapen ekonomikoko politikak sendotu ditugu, funtsezkoak diren 4 lehiakortasun-faktoreren inguruan: **Berrikuntza**. Ezagutza sortzeko iturria da eta ezagutza hori balio ekonomiko eta gizarte-balio bihurtzen du. **Industrializazioa**. Industriaren aldeko gogoia berreskuratzea eta garapenaren eragile den ekoizpen-ekonomia adimendunari laguntza sendoa ematea dira industrializazioaren oinarriak. **Nazioartekotzea**. Arriskuak dibertsifikatzeko eta euskal enpresen lehiakortasun globala hobetzeko bermerik onena da. **Inbertsioa**. Lehiakortasunerako tresna da, I+D+b-ri bultzada emateko, teknologia eta ezagutza sortu eta transferitzeko, eta azpiegitura eta proiektu estrategikoak garatzeko.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila buru duen 2014-2016 aldiko Industrializazio Plana¹ Eusko Jaurlaritzak **euskal industriari laguntzeko** erabiliko duen tresna da. Jaurlaritzaren Plan Estrategiko hau gure ekonomian funtsezkoa den sektore baten errealitate konplexuari ezinbestean eman beharreko erantzun gisa planteatzen da, hainbat elementu nagusitan oinarrituta:

- Euskadi **industria aldetik historia eta oraina dituen herria da, eta uste dugu gure etorkizunean ere Industriak garrantzia izan behar duela**, aberastasuna eta ongizatea sortzeko oinarritzkoa den aldetik. Industriak gure BEGdren %23 sortzen du (2012), baina horrez gain, ekonomiaren beste jardura batzuk herrestan eramateko gaitasuna du (industriako lanpostu bakoitzak gutxienez 2 lanpostu berri eta gehienez 5 sorrarazten ditu ekonomiaren beste segmentu batzuetan) eta gure esportazioaren eta I+G arloko inbertsioaren zatirik handiena biltzen du. Grafikoak erakusten duenez, industriak euskal ekonomian duen garrantziak atzeraldi handia jasan zuen 2009an, baina orduz geroztik portaera nabarmena izan du, gaur egungo testuinguruaren barruan kokatzen badugu: industria-jarduera kostu txikiko herrietara deslokalizatzea, azalartzen ari diren herriek industria-ekonomian gero eta partaidetza handiagoa izatea, eta industria-jardueran sekulako eragina izan duen krisi ekonomikoa. 2012an, euskal industriak BEGdn 13.750M€ sortu zituen, 12.571 enpresa biltzen zituen (guztien %8) eta 174.461 lanpostu (guztien %23) zeuzkan; nolahi ere, **krisiaren ondorioz neke-zantzuak erakusten zituen**, eta hori agerrarazten du Enplegu-erregulazioko espedienteen eta desagertutako enpresen kopuruak.

Euskal industriaren Balio Erantsi Gordinaren (BEGd) bilakaera eta balio horrek 2000-2012 aldiko BEGd osoaren gainean duen garrantzia
M€



Iturria: Eustat

- Gure industria-enpresek laguntza behar dute dagoeneko 5 urte iraun duen krisi hau gainditzeko.** Kreditu-murritzketaren aurrean, finantzazio nahikoa behar dute, baldintza lehiakorretan. Gatazkan oinarritutako lan-harremanak gainditu, eta pertsonen artean adostutako proiektuak gauzatzeko beharra dute. «Ondo ekoiztea» oinarritzko balioztat jotzen duen eredua gainditu, eta beren negozio-prozesuetan berrikuntza, teknologia, automatizazioa, errobotik, internet, diseinua, zerbitzua eta marketin-salmenta barneratu behar dituzte.


¹ Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, aurrerantzean **EGLS**

Lankidetzazko guneak eta tresnak sortu behar dituzte (adibidez, klusterrak), berritzeko eta merkaturatzeko ahalmenak biderkatzeko, besteak beste. Lanerako tresna eta esparru berriak behar dituzte, merkatu globalean toki bat izateko. Laguntza behar dute, argindarraren arloko arauketa berriaren ondorio negatiboari aurre egiteko.

Azken batean, epe motzeko premiazko behar hauek eta beste batzuek garbi uzten dute **gure enpresek lehiakorrago izan behar dutela, balio erantsi handiko estrategia aurreratuak garatuz.**

Biztanle landun bakoitzeko lan-kostu nominalen bilakaera Industrian (1995-2009) Euskadin, Espainian, Alemanian eta 15-EBn

Oinarria: 2005 m€



Iturria: Alberto Alberdi, "Ikerketak Ekonomiaz I" Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

- **Mendebaldean, industriak badu lehiakortasunerako espazio bat.** Ez da egia industria guztia kostu txikiko herrialdeetara joaten ari denik. Krisiaren ondorioak gainditzen ari diren herriek beren industria-enpresetan lehiakortasuna handitzearen aldeko apustua egin dute, eta beren orainaldia ekoizpen-sektore sendoetan oinarrituta taxutzen ari dira. Europa 2020 Estrategia berriak azaltzen duenez, industria-lidergoa kide diren herri eta eskualdeentzat lehentasunezko jarduketara-ildoetako bat da. Eusko Jaurlaritzak **euskal industriari lagundu nahi dio, munduko ekonomian bere lehiakortasun-tartea aurki dezan.** Horretarako, Euskadin balioa eta enplegua sortzeko politikak sustatuko ditu, ekonomia eta gizarte aldetik gure etorkizuneko garapeneren oinarriak direlakoan.
- Euskadin **lidergo eraginkor eta arduratsua behar dugu, kudeaketan zorrotza dena –bereziki, baliabide mugatuak ditugula kontuan izanda–.** Gainera, herrialde gisa ditugun erronka estrategikoak gainditzera bideratutako politika publikoen aldeko apustua egin behar da. Gobernu gisa, gure lehentasunak modu integratuean baina bereizita jasoko dituzten estrategiak jarri nahi ditugu abian, eraginkortasunez planifikatu, gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko. Gure hasierako industria-politiken espiritu eraldatzailea berreskuratu nahi dugu, eta haien kasuan bezala, erronka zehatzak konpontzera eta **hazkunde-garai berri baterako oinarri sendoak sortzera** bideratutako ikuspegia izan.

2014-2016 aldiko Industrializazio Plana ez da Eusko Jaurlaritzak industria-sareari laguntzeko eta ekonomia sustatzeko egiten duen lehenengo ahalegina. Legegintzaldia hasi zenetik esparru honetan **plangintza estrategikoa** landu dugu, legegintzaldi osoan garatu beharreko ekintza eta plan operatiboen esparru gisa. Alde horretatik, EGLSk bere erantzukizuneko politika, programa eta tresnak alderdi estrategikoan eta alderdi operatiboan planifikatu ditu. Hori guztia **EGLSren 2013-2016 aldiko Ekintza Planean** agerrarazten da. Plan hori, partaidetza sustatzen duen barneko kudeaketako zeharkako tresna da, eta era berean Plan honen intsumo nagusietako bat da.

Zehazki, krisiak ekonomian eta gizartean izan dituen ondorioei aurre egiteko, **2013an besteak beste industriari laguntzeko txoke-planak eta enplegua sustatzeko planak jarri dira abian**. Plan horietan 1.000M€ baino gehiago erabili dira.

Arauen ikuspuntutik, Industrializazio Plan honek Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 20. artikulua betetzen du. Artikulu horrek dioenez, *“Industriako eskumena daukan sailak industria-jarduerari buruzko lau urteko plan estrategikoak egingo ditu. Planak erakundeen artekoak izango dira eta gaiarekin zerikusia duten gizarte eta ekonomia eragile guztiek hartuko dute parte. Gai hauek jorratuko dituzte planek: lege honetan aurreikusten diren industria-politiken diagnostikoak, printzipioak, helburuak, politikak, baliabideak, finantzaketa eta ebaluazioa. Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaizkio plan horiek, eztabaida ditzan, eta haien betetze-mailari buruzko ebaluazioa egingo da aldian-aldian.*

1.2. Plana egiteko metodologia

2014-2016 aldiko Industrializazio Plana **EGLSko Industria sailburuordetzak egin du SPRIekin eta Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzan**. Horretarako, euskal industriaren lehiakortasuna garatzeko gako **estrategikoak eta operatiboak aztertu ditu eta horiei buruzko gogoeta eta alderatzea egin ditu prozesu sistematiko batean**, eta arlo horretan nagusi diren eragileen partaidetza eduki du. Ondo dakigu gobernu-plan estrategikoak eraginkorragoak direla **zerikusia duten eragile batzuek eta besteek ahalegina egiten dutenean gogoeta eta azterketa konpartituan**.

Jarraian, Plana osatzen duten **elementu** edo piezarik garrantzitsuenak aurkeztuko dira, haietariko bakoitza lantzeko erabilitako metodologiaren ikuspegitik:

- **Abiapuntuko oinarriak:** udalerrietako, estatuko eta Europako erreferentziazko testuinguru politikoarekin eta arau-testuinguruarekin zerikusia duten edukien multzoa lantzeko, Industrializazio Planaren inguruan dauden plan, lege eta agiriak aztertu dira. Euskadiren ekonomi eta industria koiunturaren kapitulua lantzeko, Ogasun eta Finantza Sailak, EGLSk eta Eustatek egindako koiunturazko azterlan, txosten eta estatistikarik berrienak kontuan hartu dira.
- **Helburuak, ardatz estrategikoak eta ekintzak definitzea:** 2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren gorputz estrategikoa EGLSko Industria Sailburuordetzak, SPRIk eta Energiaren Euskal Erakundeak definitu dute. Hain zuzen ere, erakunde horiek arduratzen dira enpresen industrializazioa sustatzeko politika nagusiak diseinatu, planifikatu, egikaritu eta ebaluatzeaz. Estrategian laguntza iraunkorra eman du **Ogasun eta Finantza Sailak**. Sail hori arduratu da Planean egituratutako finantzaketa-tresnez.
- **Planaren Gobernantza:** egitura estrategikoa osatu ondoren, EGLSko Industria Sailburuordetzak Plana kudeatzeko mekanismoak definitu ditu, ikaspen hauek oinarri hartuta: 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana, lehenik zeuden kudeaketa-mekanismoetako eta EGLSren 2013-2016 aldiko Ekintza Planean definitutako mekanismoetako palankamendua, eta Lehendakariak Koordinazioaren Zuzendaritzaren arloan egindako gomendioak (Oinarritzko lldo Estrategiko eta Ekonomikoen ebaluazioa).


Industrializazio Plana errazte-eragile nagusiek alderatu, zuzendu eta baliozkotu dute erakundeen eta sektoreen arloan, bai eta arlo publikoan zein pribatuan ere, helburu bikoitzarekin: **lehenetasun, helburu eta ardatz estrategikoen ikuspegi adostua** lortzea, eta erakundeen erantzukizunak bultzatuta, **sinergiak gauzatzeko** lanean aurrera egitea, azaldu diren eragile batzuen eta besteen ekimenak ugariak diren arlo batean. Hona hemen Planean fase batzuetan eta besteetan laguntza eman duten eragile nagusiak:

- Foru Aldundiak. Arlo horretan funtsezko eragileak dira. Prozesu osoan haiekin etengabeko elkarrizketa egon da eta erakunde aldetik hainbat gauza hitzartu dira
- Industrializazioarekin zerikusia duten ekintzak egin dituzten Eusko Jaurlaritzako beste arlo batzuk (EGLS: Teknologia Zuzendaritza, Ekintzaitzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza, Nazioartekotze Zuzendaritza; Lehendakariak; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila). Arlo horiekin guztiekin akordioak egin dira Industrializazio Planerako garrantzia duten esparruetan (bultzatu beharreko jarduketei buruzko akordioak eta koordinazio-mekanismoak). Era berean, Planaren ondoz ondoko zirriborroak aztertu eta baliozkotu dituzte.
- Ekoizpen-ekonomiaren babesaren arloan aktiboak diren eragileak. Haiek planaren azken zirriborroa aztertu eta baliozkotu dute. Zehazki, Enpresa Elkarteak, Sindikatu Erakundeak, Merkataritza Ganberak eta EUDEL.

- Ekonomia eta gizarte arloko alderatzea. Horretarako, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Plana aztertu du.

Lantzeko eta alderatzeko prozesua amaitutakoan, 2014-2016 aldiko Industrializazio Plana **tramitatu eta negoziatzeko prozesua** hasiko da. Plana Gobernu kontseiluan onetsi behar da eta gerora Eusko Legebiltzarrean tramitatu eta eztabaidatu. Hala, Planak ahalik eta babes politikorik zabalena edukiko du, baita adostasun-giro egokia ere, aurreikusita dauden ekintzak ezartzean eraginkortasunik handiena bermatze aldera.

2014-2016 aldiko Industrializazio Plana egiteko metodologiaren eta planak jasan dituen alderatze nagusien denbora-laburpena



1.3. Erreferentziako testuinguru politikoa eta arau-testuingurua

2014-2016 aldiko Industrializazio Plana nazioartean eta eskualdean politikaren eta arauen arloko testuinguru jakin batean kokatzen da. Testuinguru horrek zehazten ditu planaren lehentasunak, edukiak eta ekintzarako tresnak.

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren esparru politikoaren eta araudiaren laburpena



1.3.1. Nazioarteko testuingurua – Europar Batasuna

Europako Batzordea: Europa 2020 Estrategia

201eko ekainean, Kontseilu Europarrak **Europa 2020 Estrategia hartu zuen, hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea bultzatzeko**. Estrategiak EBren helburu nagusiak zehazten ditu hainbat arlotan: ikerkuntza eta berrikuntza, klima-aldaketa eta energia, enplegua, hezkuntza eta 2020ean pobrezia murriztea. Helburu horiek helburu nazional bihurtu behar dira.

Europa 2020 estrategiaren gidalerro integratuek eta zazpi ekimen enblematikoez xehetasun handiagoz irudikatzen dute bidea hazkunde iraunkorrerako, enplegua sortuko duen hazkunderako. Alde horretatik, **industria-lidergoa izango da kide diren herri eta eskualdeen lehentasuneko jarduketa-ildoetako bat**.

Antonio Tajanik, Europako Batzordeko lehendakariorde eta Industria eta Ekintzaitzako arduradunak dienez: *"Industria Europaren bihotzean dago, eta ezinbestekoa da gure gizartearen erronken konponbideak aurkitzeko, gaur eta etorkizunean ere bai. "Europak industria behar du, eta industriak Europa behar du. Merkatu bakarraren ahalmen osoa aprobetxatu behar dugu, 500 milioi kontsumitzaileen eta 20 milioi enpresaburuen ahalmena ere bai"*.

Europa 2020 Estrategiaren *"Industria politika bat mundializazioaren garairako"* izeneko ekimen enblematikoak dienez, **industriak eta, bereziki, ETEek krisi ekonomikoaren eragina jasan dute**. Horregatik, sektore guztiek globalizazioaren erronkei aurre egin behar diete eta beren ekoizpen-prozesuetan doikuntzak egin behar dituzte, karbono-igorpen mugatuak dituen ekonomia bat xede dela. Erronka horien eragina diferentea da, sektore batetik bestera. Sektore batzuek euren burua "berrasmatu" beharko dute; beste sektore batzuentzat, aldiz, erronka horiek negozio-aukera berriak ekarriko dituzte.

Europako Batzordea sektore batzuetako eta besteetako eragileekin (enpresak, sindikatuak, arlo akademikoa, gobernu kanpoko erakundeak, kontsumitzaileen erakundeak) elkarlanean ari da **industria-politika moderno baten esparrua** ezartzeko. "Industriaren berpizkundea"ren alde egiten da, EB hazi ahal izan dadin eta enplegua sortu ahal izan dezan. Politika horrek enpresa-ekimena babestuko du, industriari orientabidea eta laguntza emango dizkio erronka berri horiei aurre egiteko, Europako lehen mailako zerbitzuen industrien eta manufaktura-industrien lehiakortasuna sustatuko du eta, azkenik, globalizazioaren eta ekonomia berdearen aukerak aprobetxatzen lagunduko du. Esparruak gero eta

nazioartekoagoa den balio-katearen elementu guztiak landuko ditu, lehengaien eskuragarritasunetik hasi eta salmenta osteko zerbitzuraino. Europako industria modernizatzeko neurriak planteatzen dira. Horretarako, inbertsioak egingo dira berrikuntzan, teknologia berrietan, kualifikazioetan eta finantzaketaren eskuragarritasunean. Neurri horiek bizkortzeko, Europako fondo espezifikoak erabiliko dira. Gainera, Europako Batzordeak enpresentzat inguruabar egokiagoak ezartzea proposatzen du. Horretarako, Europako araudia erraztuko da eta kanpoko merkatuetan sartzeko aukera emango da.

Ekimen horren barruan, Europako Batzordeak ildo hauetan jardungo du, besteak beste:

- **Europar industriaren eta lehiakortasunaren aldetik oinarri sendoa mantendu eta garatzeko ingurunea egokia sorraraziko duen industria-politika ezartzea**, eta laguntza ematea manufaktura-sektoreek energiaren hobekuntzarako trantsizioa egin dezaten.
- **Industria-politikaren ikuspegi horizontala** garatzea, legediaren tresna batzuk eta besteak konbinatuz, adibidez araupetze "adimenduna", kontratazio publiko modernizatua, lehiakortasun arauak, eta araudien ezarpena.
- **Enpresen ingurunea hobetzea, bereziki ETEentzat**, transakzio-kostuak murriztuz, Europar negoziok egin ahal izateko, enpresa-taldeak sustatuz, eta finantzaketaren eskuragarritasuna hobetuz.
- **Krisian dauden sektoreak berregitura daitezela eta etorkizuneko perspektibak dauzkaten jardueretara bidera daitezela** sustatzea. Horretarako, trebetasunak azkar agerraraziko dira azaleratzen ari diren eta azkar hazten ari diren sektore eta merkatuetan, eta Europar Batasunaren laguntzak edota Globalizazioari egokitzeko Europako Funtza babestea.
- **Baliabide naturalen erabilera murriztuko duten teknologiak eta ekoizpen-metodoak** sustatzea, eta dauden baliabide naturaletarako EBn dagoen inbertsioa handitzea.
- **ETEen nazioartekotzea** sustatzea.
- Arauak berrikustea, **zerbitzu-sektoreak eta manufaktura sektoreak garatzeko eta baliabideen eraginkortasun hobetzeko**, birziklapen eraginkorragoa barnean dela. Hala, lehiakortasunerako Europako eta nazioarteko arauak hobeto ezarri ahal izango dira epe luzean Europako industriaren lehiakortasunaren onerako. Alde horretatik, oinarriko errazte-teknologiak merkaturatzeko eta aintzat hartzeko sustapena egingo da.
- **Gizarte Erantzukizun Korporatiboa** sustatzeko EBren estrategia berritzea, erantzukizun hori epe luzea eta kontsumitzaileen konfiantza bermatzeko funtsezko elementua delakoan.

Estatu kideek hau egin beharko dute, eremu nazionalen:

- **Enpresen ingurunea hobetu, bereziki ETE berritzaileentzat**, adibidez erosketa publikoko politiken bidez, berrikuntzarako pizgarri gisa;
- **Jabetza intelektuala** aplikatzeko baldintzak hobetu;
- Enpresen **administrazio-karga murriztu**, eta merkataritzako legediaren kalitatea hobetu;
- Sektore batzuetako eta besteetako (enpresak, sindikatuak, arlo akademikoa, gobernu kanpoko erakundeak, kontsumitzaileen erakundeak) eragileekin lankidetzan aritu, itoguneak identifikatzeko eta industria-oinarri sendoa eta ezagutza sendoa edukitzeko moduari buruzko azterketa konpartitu bat egiteko, eta EB lider gisa jartzeko garapen global iraunkorri dagokionez.


Jarraian, Europa 2020 Estrategiaren esparruan planteatzen den **industria-lidergoko helburua lortzeari dagokionez eragin handiena duten Europako Batzordearen programa eta ekimen nagusietako batzuk** aurkeztuko dira. Hona hemen ekimen horiek:

- HORIZON 2020 programa, I+G finantzatzeko
- COSME programa, enpresen eta ETEen lehiakortasuna sustatzeko programa

Europako Batzordea: HORIZON 2020

Horizon 2020 programa 2014-2020 aldian I+G finantzatzeko Europar Batasunaren programa da. Lehengo I+Gren Esparru Programa eta Berrikuntza eta Lehiakortasuneko Programa ordeztzen ditu. Horizon 2020 programak babesa emango du Europa 2020 estrategia nahiz Batasuneko gainerako politikak aplikatzeko. Programak Ikerketa Zentro Bateratuaren (JRC) eta Berrikuntza eta Teknologiako Europako Institutuaren (EIT) babesa izango du.

HORIZON programaren norainokoa eta jarduketa-eremuak



Iturria: Europako Batzordea, European Research and Innovation office

Hiru jarduketa-eremuetako bakoitzerako, Horizon 2020 Programak hainbat ekimen planteatzen du:

- 1. Industria-lidergoa:** Etorkizuneko enpresen euskarri izango diren teknologia eta berrikuntzen garapena bizkortzea eta ETE berritzaileei laguntza ematea, munduan buru bihurtzeko zabalkundearen.
 - Lidergoa industria-teknologietan eta gaikuntza-teknologietan, eta berriazko laguntza ematea IKTei, nanoteknologiari, material aurreratuei, bioteknologiari, fabrikazio eta prozesamendu aurreratuei, etab.ei, eta errazte-teknologiaren arteko konbinaketari;
 - ETE berritzaileei laguntza ematea, eta horretarako, funtsezkoak diren industria-teknologietan inbertsio garrantzitsuak egitea;
 - Arrisku-finantzaketa eskuratzeko aukera
- 2. Zientzia bikaina:** Batasunaren oinarri zientifikoaren bikaintasuna indartu eta handitzea, eta Europako Ikerketarako Eremua sendotzea, Batasuneko ikerketa eta berrikuntza sistema mundu osoan erakargarriago bihurtzeko.
 - Talentuari eta sormenari laguntza ematea, bai banaka, bai enpresaren barruan.
 - Esparru akademikoa hobetzea ikerketari dagokionez.
 - Europak goi mailako ikerketarako azpiegiturak izan ditzala bermatzea.
- 3. Gizarte-erronka:** Batasunaren helburu politikoak lortzeko beharrezkoak diren ikerketako eta berrikuntzako ahaleginei pizgarria ematea.
 - Osasunarekin, aldaketa demografikoekin eta ongizatearekin zerikusia duten erronketan laguntza ematea

- Elikagaien segurtasuna, nekazaritza iraunkorra eta bioekonomia sustatzea
- Energia segurua, garbia eta eraginkorra
- Garraio adimenduna eta "berdea"
- Ingurumena babesteko neurriak, baliabideen eta lehengaien eraginkortasuna
- Segurua den eta gizarte-aldaketei egokituta dagoen gizarte bati laguntza ematea

Europako Batordea: COSME programa

Europako Batzordeak COSME Programarekin egiten duen proposamenaren xedea (Europako Parlamentuak 1287/2013 zenbakidun arautegiarekin eta kontseiluak 2013ko abenduaren 11n onartu zutena), **ETen, enpresaburu berrien eta enpresa-erakundeen** enpresa-lehiakortasuna sustatzea da. Programak finantzaketa eskuratzeko bide errazagoa emango du, negozioei laguntzeko zerbitzuak eskainiko ditu eta enpresa-ekimena sustatuko du.

Europako Kontseiluak eta Parlamentuak onetsi behar duten Programa hori 2014tik 2020ra arte garatuko da. Aurreikusita dagoen aurrekontua 2.522 milioi € da, eta horietatik 1.400 milioi finantza-tresnei esleituko zaizkie.

Honako jarduketako-ildo hauek dauzka programak:

1. Enpresaren bizi-zikloaren fase batzuetan eta besteetan **ETEEK finantzaketa errazago eskuratzeko aukera ematea, finantza-tresna espezializatuen bidez**. Batzordeak bi finantzaketa-tresna jartzen ditu enpresen eskura:
 - Hazkunderako kapital-tresnak. Horien ardatza zabalkunde eta hazkunde fasean dauden enpresei arrisku-kapitaleko finantzaketa eskainiko dieten funtsak izango dira.
 - mailegu-bermeetarako tresnak. Horiek 150.000 eurora arteko maileguak estaliko dituzte, mota guztietako ETEentzat.

Tresna biak Europako Inbertsio Funtsak kudeatuko ditu, finantza-erakundeekin lankidetzan, Estatu kide batzuetan eta besteetan.
2. **Merkatuetara sartzeko erraztasuna ematea** bai batasunean bai mundu osoan; hori lortzeko, hau egingo da:
 - Enterprise Europe Network sareari laguntza emango zaio. Sare horrek enpresentzako zerbitzu-zentroaren lana egiten du, bertako bazkideekiko lankidetzatza sustatzeko.
 - ETEEK merkatu bakarrera sartzeko modua izan dezatela sustatzea, informazio- eta kontzientziazio-ekintzen bidez.
 - Nazioarteko industria-lankidetzatza babestea, arau- eta enpresa-arloko esparruetan diferentziak murrizteko Europar Batasunaren eta bere merkataritza-bazkiderik garrantzitsuenen artean.
3. **Ekintzailatza** babestu eta sustatzea, urtero Europa osoan antolatuko diren berriazko ekintza ugariaren bidez. Jarduera horien helburuak hauek izango dira:
 - Administrazio-prozedurak sinpletzea.
 - Hezkuntza-edukiak sortzea.
 - Ekintzailatzarako trebetasunak eta jarrerak garatzea (bereziki ekintzaile berrien, gazteen eta emakumeen artean).
4. **Esparruaren baldintzak hobetzea Batasuneko enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna bideratzeko**, bereziki ETEei dagokienez. Helburua Europako enpresen lehiakortasuna, iraunkortasuna eta hazkundera sustatzen dituzten politiken eraginkortasuna, koherentzia eta kongruentzia handitzea da. Ekintza hauek nabarmendu ahal dira:
 - Enpresen lehiakortasunari, iraunkortasunari eta hazkunderari eragiten dieten politiken diseinua, aplikazioa eta ebaluazioa hobetzeko neurriak.
 - Politiken diseinuan eta jardunbide onen elkartrukean lankidetzatza sustatzea helburu duten neurriak.
 - ETEei buruzko politikak garatzen laguntzea, ETEEK ezarrita dauden programak eta neurriak eskuratzeko modua izan dezaten.

aurreratuaeren arloan sortutako **gaitasun zientifiko eta teknologikoak** (ezagutzaren aldetik intentsiboa den fabrikazioarekin zerikusia duten jarduerak dira fabrikazio aurreratukoak).

Laburbilduz, zera esan dezakegu: azken hamarkadetan Euskadi ahalegin ugari egin dira industria-politikaren arloan, eta gaur egun, are ahalegin handiagoak egiten ari dira, krisia gainditzea eta euskal industriaren lehiakortasuna indartzea helburu duten politika eta programa batzuen egiturarekin. Politika eta programa horietako bat da 2014-2016 aldiko Industrializazio Plan berria.

Industrializazio Plan berri hau garatzen den unean, eta euskal industria-politikan azken hamarkadetan izan den esperientziatik abiatuta, hainbat **gauza ikasi da**, besteak beste:

- Planak, krisi-koiunturaren eraginpean egonik ere, “**Euskadin etorkizunean nahi dugun industriaren ikusmoldea**”, planteatu behar du, aurrean dauzkagun erronka globalen arabera. Ondo dakigu enpresek beharizan larriak dauzkatela epe laburrean, krisiari aurre egiteko, baina ezin diogu uko egin epe luzeko estrategiak definitzen jarraitzeari, estrategia horiek gure enpresa-egunaren lehiakortasun iraunkorra bideratzen baitute.
- Testuinguru horrek behartuta, **enpresa-ehunaren beharizanen ondo-ondoan egongo den enpresa-politika bultzatuko da**. Politika hori ezartzeko oinarria, SPRIren protagonismoa berreskuratzea izango da, erakunde hori euskal enpresen lehiakortasunaren hobekuntza lagundu eta bultzatzeari dagokionez enpresa-sarearen esanetara dagoen tresna publiko nagusia den aldetik.
- Gure enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzea ez da oinarritzen eragile edo ekintza isolatuetan, baizik eta neurri eta eragile koordinatu batzuen masa kritiko batean. Hala ere, ezinbestekoa da **politikak eta ahaleginak segmentatu eta fokalizatzea**, Euskadi erakunde-sektore publikoaren arkitektura berria diseinatzeko egiten ari den apustuarekin ildotik. Hain zuzen ere, apustu horren oinarriak baliabideen birdimentsionatze eta arrazionalizatzea, eta ahalegin eta eragileen berrantolamendu eta fokalizazioa dira.

X Legegintzaldi honetan, **euskal industriari buruzko eztabaida sekula baino biziago dago**. Egungo egoera eta krisitik arrakastaz irteteko beharra kontuan hartuta, Euskadik ezinbestekoa du aldi batean zuen industria-izaera berreskuratzea eta ekoizpen-ekonomia ausarki babestea. Baina **zein eredu nahi dugu industria lehiakorra izateko?, zein elementuk osatzen dute eredu hori?, zer egin behar dugu erakunde, ekonomi eta gizarte eragileok industriaren lehiakortasuna hobetzeko?**

Galdera horiei erantzuna emateko, 2014-2016 aldiko Industrializazio Planak gure industriaren oraingo eta etorkizuneko gakoak aurkezten ditu eta lehiakortasunari laguntza emateko lehentasunezko esparruak definitzen ditu; horretarako, Jaurlaritzaren ekonomiaren sustapenerako politika publikoen agerraldia planifikatzen du.

X Legegintzaldiko Gobernu Programa

X Legegintzaldiko Gobernu Programak **hiru konpromiso ezartzen ditu: Enplegua eta Pertsonak, Bakea eta Elkarbizitza, eta Euskadirentzako Estatus Politiko berria.** Lehendakariaren esanetan, enpleguaren eta ekonomiaren susperraldiaren aldeko konpromisoak esan nahi du *“...gure ekonomia eta gure enpresak bultzatu behar ditugula, lehiakorragoak izatea lortu behar dugula. Horretarako, bada, gure industri politikako eredia berreskuratuko dugu, klusterretan nahiz produkzio ekonomian oinarritzen den eredia, alegia.”*

Alde horretatik, Gobernu Programak (1.2 azpiardatzaren bidez) **industria-eredu propio baten aldeko apustua planteatzen du, etorkizunean Euskadiren ekonomia eta lehiakortasuna garatzeko oinarri gisa.** 1. Ardatzaren barruan (“Hazkunde Iraunkorra”, 1.2. azpiardatzean. (*“Ekintzaitzaren eta ekoizpen ekonomiaren aldeko apustua”*), Gobernu Programak hurrengo helburu eta ekimen hauek ezartzen ditu, besteak beste:

Helburuak	Ekimenak
1. Lehiakortasunaren eta industri politikaren eredu propioa berreskuratzea	<ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpen ekonomian oinarrituko den lehiakortasunaren eta industri politikaren eredu propioa berreskuratzea, betiere berrikuntzaren, nazioartekotzearen, prestakuntzaren eta azpiegituren estrategiak aintzakotzat hartuko dituen Ekonomia Suspertzeko Plan baten bitartez, eta Foru Aldundien eta eragile ekonomiko inplikatuaren partaidetza bideratuz. • Arlo estrategikoetan teknologia berrien eskuragarritasuna eta erabilera handiagotzea eta enpresa ekimen berriak sorraraziko dituzten aukerak identifikatzea jakintzan trinkoak diren sektoreei begira. • Produktibitatea hobetzera eta enplegua sortzera zuzendurik dauden lehiakortasun politikak garatzea, aliantzak zabaltzea eta lehiakortasun globalari aurre egitea ahalbidetzen duen enpresa dimentsionamendua bultzatzea. • Enpresen laguntza ematea, moderniza daitezen, teknologia berriagoak eta ekoizpen prozesu helduagoak erabil ditzaten eta produktu, sistema edota prozesu berrien ikerketari eta garapenari ekin diezaieten. • Euskadiko enpresa eragileak sendotzea, euskal ekonomiaren globalizazioa sendotzeko eta hornitzaileen katea dinamizatzeko gaitasunetik abiatuz. • Euskal enpresak eta haien erabaki zentroak gure herrialdean mantentzeko laguntza eta babesa ematea.
2. ETEei laguntzea susperraldiaren bidean	<ul style="list-style-type: none"> • ETEek eta kooperatibek finantzazioa eskuratzeko dauzkaten bideak erraztea, ETEen eta autonomoen zirkulazailerako finantza erakundeekin hitzartutako finantzazio funtsaren bitartez. • ETEei laguntza integrala emateko programa bat sustatzea, besteak beste honako helburu hauek izanda: belaunaldi berrien txandakatzea erraztea, ekoizpen lerro berritzaileak abiaraztea, kontratazio berriak bultzatzea, erakunde horietako pertsonen zuzendaritza trebetasunak indartzea eta foru ogasunekin batera euren fiskalitatea hobetzea. • Enpresen arteko lankidetzarako eta elkarlanerako politikak erraztea eta bultzatzea ETEek tamaina eta dimentsio ezin hobea lor ditzaten, modu integralean eta arruntagoan ikerketa, berrikuntza eta nazioartekotze prozesuetan sartuko direla bermatzeko.
3. Klusterren politika berriaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> • Klusterren estrategia berriro abian jartzea, hain zuzen, prestakuntza, garapen teknologiko, nazioartekotze eta lankidetzaren alorreko beharrei aurre egitea xede duen estrategia. • Klusterrak sortzeko politika egokitzea, betiere lehentasunak ezarriz eta finantzazio-sistema berriak abian jarriz enpresen inplikazio eta esku-hartze handiagoarekin.
4. Enpresa-proiektu berrietarako finantzatresnak garatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Sortu berri diren enpresen finantzioari laguntzeko lerroak sendotzea eta garatzea, honako hauek besteak beste: egindako inbertsioei dagozkienak (Gauzatu), finantza premiei aurre egiteko abalabak, enpresa proiektuetako partaidetza, lehenengo urtean abian jartzeko laguntzak edota instalazio fisikoak edo bulegoak eskuratzeko. • Arrisku kapital eta hazi kapitalaren erabilgarritasuna nabarmen areagotzea euskal enpresa berrien eskura ipintzeko.
5. Hazkundera eta enplegu-sorrera bultzatzea, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez	<ul style="list-style-type: none"> • Industri politika, ekonomi sustapena eta etengabeko prestakuntza biltzen dituzten programa zehatzak bultzatzea. • SPRI erakundeak koordinazio-organo operatibo bat eratzea, betiere ekoizpen sektoreetan inplikaturiko gobernuaren arloetako arduradunak, foru aldundiak, merkataritza ganberak, garapen agentziak eta industri politikan aktiboak diren gainerako eragileak bilduz.
6. Enplegua sorrarazten duten inbertsioak erakartzeko aktiboen industria-politika	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioak egiteko herrialde erakargarri baten irudia sustatzea, betiere gure indarguneetan eta nortasun zantzetan oinarri hartuz. • Gainerako euskal erakundeekin batera lankidetzan, arazuko esparru bat garatzea inbertsioen ezarpena sutatze aldera eta gaur egun daukagun ekoizpen sarea osatzeko, balioa bultzatzeko eta lana sorrarazteko gaitasuna daukaten enpresen finkapena erakartzeko aldera.
7. Dauden enpresen barruan enpresa-jarduera berrien sorrera bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa traktoreen eta enpresa hornitzaileen arteko lankidetzak bultzatzea, betiere enpresa berrien sorrera sustatzeko asmoz. • Euskal enpresen barne-ekintzaitzarako gaitasuna ahalik eta gehien indartzea, bereziki enpresa proiektu berriak sortzeko eta garatzeko. • Nazioarteko enpresak eta pertsona ekintzaileak erakartzea, Euskadin finkatuko direla errazteko helburuarekin.
8. Dibertsifikazioa bultzatzea azaleratzen ari diren sektoreetan	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen eta hazkunde bidean dauden sektore ekonomikoen garapena sustatzea (“Offshore”, sare elektriko adimendunak eta energiaren pilaketa, besteak beste) eta Euskadiko industri eta ekonomi jardueraren traxzio-eragina ekar dezaketenak bultzatzea ere. • Industri eta enpresa dibertsifikazioa bultzatzea hazten ari diren sektoreetan, hala nola aholkularitza zerbitzuetan, merkataritza eta finantza zerbitzu aurreratuak, eko-teknologietan eta ekonomia berdean, hiri garapen adimendunak (“smart cities”), on-line zerbitzuetan eta lehenengo sektoreko ekimen berritzaileetan.
9. Nazioartekotzea babesteko duen industria-politika	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioartekotzeari laguntzeko programak eta pizgarriak sendotzea zenbait alderdiri begira: esportazioari, merkataritza ezarpenari eta ekoizpen zentroen kokapenari begira, alegia. • Enpresen arteko lankidetzaren alde egitea merkatu globaletan sartzeko estrategia gisa.
10. Euskadi-Basque Country marka eta markaren industria-aplikazioa garatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadi – Basque Country marka garatzea, euskal produktuak eta zerbitzuak kanpoko merkatuetan identifikatzeko elementu gisa. • “Euskadi-Basque Country” markaren garapena bultzatzeko asmoz, industri sareekin eta gainerako euskal erakundeekin parte-hartze prozedura sustatzea.
11. Ekintzaitzeta-kultura bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzaitzari buruzko kultura bultzatzea hezkuntza eta prestakuntza maila desberdinetan, betiere gazteei eta irakasleei zuzenduta.

Taulan kolore ilunarekin erakusten dira Industrializazio Planaren helmen nagusiaren barruan geratzen diren helburu eta ekimenak, eta kolore zuriekin industria-enpresen lehiakortasunaren gainean eragin zuzena eduki arren Industrializazio Planean xehetasunez ageri ez direnak, erakunde arteko eta sail arteko beste gobernu Plan batzuetan garatuta eta zehaztuta egoteagatik.

EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) Akordioa

2013ko irailaren 16an EAJ-PNV eta PSE-EE(PSOE) alderdiek Euskadi modernoago, solidarioago, iraunkorrago eta lehiakorra lortzeko akordioa sinatu zuten. Akordio horren barruan, ekoizpen-ekonomia eta lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzeko berriazko akordio bat ezarri da. Horretarako bidea, **Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Plana** da.

Plan orokorra da, Eusko Jaurlaritzaren (4i Estrategia eta zerikusia duten gobernu-plan estrategikoak), Aldundien eta Udalen ahaleginak bideratzen dituen, eta besteak beste jarduketa-ildo hauek dauzkana:

- a) Enplegurako proposamen zehatza **epe luzeko langabeei eta lan esperientziarik gabeko gazteei zuzendua**, talde hauek dauden pertsonak kontratatzeke laguntasunak emanez, eta ahalegin berezia langabezi tasa handienak dauden eskualdeetan eginez.
- b) **Enpresa Pizgarriak emateko Programa** abian jartzea, abalen bidez, Euskadin enplegua sortzen duten, esportazio kontratuak bultzatzen dituzten edo I+G+b arloko balio erantsi handiko inbertsio-proiektuak bultzatzen dituzten enpresei, baldin eta Egitasmo kaudimendunak badituzte, beren finantzaketa bermatzeko.
- c) **Ikerketa eta garapena** suspertzeko bultzada antiziklikoa, ezagutza sortzen duen balio erantsia lortzeko esparruan lehiatu ahal izateko. Gure sektore ekonomikoaren hazkunde (enplegua sortzeko ezinbestekoa) ezagutza handiagoaren oinarrian baino ezin izango da egin, eta horrek esportatzen eta beste merkatuekin lehiatzen lagunduko digu.
- d) Lurraldeetako Erakunde arteko Inbertsio Plana, enplegua sortzen duten **azpiegitura estrategiko** orokorrak abian jartzeko (garraioa, etxebizitza, egitasmo zientifikoak, ingurumena, e.a...), lehenagotik aurreikusitako ekimenei jarraipena emanez
- e) **“Euskadi Funtsa” sortzea, enpresa ekimen berriei kapitala emateko**, zerga tratamendu berezia ezarriz.
- f) Gutxienez orain arteko zuzkidura ekonomikoarekin, **“REMOVE” egitasmoekin** jarraitzea, krisialdi ekonomikoak bereziki kaltetu dituen arlo ekonomiko eta komertzialetan, eta politika publikoek beste arlo batzuk lehenetsi dituztelako alboratuak izan direnetan (makineria, etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa, e.a...), Euskal Autonomi Erkidegoko sektore industrial eta komertzialetako jarduera mantentzen eta sustatzen laguntzeko xedez.
- g) Eusko Jaurlaritzak behar besteko ekimenak bultzatuko ditu, ugazaberiaren sektoreak eta sindikatuek Euskadin **negoziaketa kolektiboari** buruzko akordioak lor ditzaten.

Neurri zehatz hauek nabarmentzen dira:

- a) Nazioartekotzea sustatzeko ekimenaz gain, tamainagatik, ekonomia edo inguruko Enpresa txiki eta Ertainak bultzatzeagatik Euskadirentzat izaera estrategikoa duten enpresa egitasmoak barnean hartzen duen **sektore industrial bultzatzeko estrategia** garatzea.
- b) **Berrikuntza babestea, bereziki teknologiaren eta enpresaren esparruan**, Euskadiko lehiakortasuna hobetzeko iturrizat hartuta. Honek suspertze ekonomikoa ekarriko du, kalitatezko enplegu egonkorak sortzea ahalbidetuko duena. Kontuan hartuko da, bereziki, ekimen enpresarialetara zuzenean lotutako garapen teknologikoei laguntzeko azpiegiturak (ez higiezinak) martxan jartzeko lankidetzak.
- c) **Inbertsio publikoak** sustatzea, enplegua sortzeko eta suspertze ekonomikoa lortzeko tresna delakoan. Halako inbertsioen artean, bereziki aurreikusiko dira nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna hobetzeko zuzenduak, izaera bultzatzaile eta enplegu sortzaileak dutelakoan.

Suspertze Ekonomikorako eta Enplegua sortzeko Planerako, 2014, 2015 eta 2016. urteotan, luzatutako aurrekontuan aurreikusi diren baliabideez gain erabiliko da akordio honen bidez abian jarri nahi den zerga erreforma eta iruzurraren kontrako ekimen honetatik eta beste neurri batzuen bidez lortuko diren baliabideen %50.

Akordio honek legegintzaldi honetan Euskadiri lehiakortasunaren bide berri hartzen lagunduko dioten estrategia eta programak hedatzeko beharrezkoak diren **oinarrizko jarduketa-ildoak eta aurrekontu-egonkortasuna** ezartzen dira. Akordioa garatu eta eguneratzeko hiru mekanismo aurreikusten dira (mekanismo horiek 3.3. Jarraipen- eta ebaluazio-sistemak atalean ageri dira):

- Legebiltzarraren dinamika. Legebiltzarraren jardueren bidez, eta bereziki Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Batzordean eta Ogasun eta Aurrekontuen Batzordean egiten diren jardueren bidez, Planean aurreikusitako ekintzen jarraipena egin ahal izango da, baita EAJ-PNV - PSE-EE akordioekin alderatu ere. Alde horretatik, urtero Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Batzordeak Plan honi buruz berriazko bilera bat egin dezala aurreikusi da.

- Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak eta, bidezkoa bada, erakunde arteko beste kontseilu batzuek hartutako akordioak (Ekonomi Sustapeneko Euskal Kontseiluarenak eta Inbertsio Estrategikoen Bulegoarenak). Zerga erreforma eta iruzurraren aurkako borroka koordinatzeaz arduratuko da, eta azken erabakia hartuko du 2014-2016 aldiko Industrializazio Planerako baliabide gehigarriak esleitzeari buruz, alderdien artean adostutako Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Plana oinarri hartuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak negoziatu eta onestea. Urtero Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailerako aurrekontu-esleipena negoziatu eta onetsiko da, Industrializazio Plana garatzeko esleipena barnean dela.

1.3.3. 2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Plana ebaluatzea.

Plangintza estrategikoaren ikuspuntutik, Industrializazio Plan honen aurrekari hurbila Eusko Jaurlaritzaren 2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Plana da (PCE 2010-2013). Plan horren helburua, hazkunde ekonomikoa laguntzea da, eta horretarako, ondasunak modu iraunkorrean ekoiztea eta balio erantsi handia duten zerbitzuak ematea.

Lehiakortasunaren kontzeptua denborarekin eraiki da, eta erronkak aldatu ahala bilakatu da. Jaurlaritzak garatutako politikak zenbait alor sustatu ditu bereziki: 80ko hamarkadan, modernizazio teknologikoa sustatu zuen; 90eko hamarkadan, berriz, sistemaren elementuen arteko harremanak, eta, azkenik, 2000. urtetik aurrera, jakintza eta berrikuntza, zentzurik zabalenean.

2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren helburua **jakintzaren ekonomia globalean Euskadiren lehiakortasuna eraldatzea zen**. Horretarako, berrikuntzarako gaitasun "irekia" indartu nahi zen, sektoreen arteko harremanak nahiz jakintzaren eta lurraldeen harremanak bultzatu, etorkizunerako jarduera berriak garatu eta euskal ekonomia nazioartekotu.

2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren indarraldia igarotakoan, plana berrikusteari ekiteko unea da, lortpenak eta mugak baloratzeko. Horretarako, bi multzotan egituratutako ebaluazioa egin da:

Enpresa Lehiakortasuneko Planaren aginte-taula (2010-2013):

ELPan ezarri ziren helburuen betetze-maila, ezarritako Jarduketa-ardatzen arabera aztertu behar da, eskuragarri dauden azken datuak kontuan hartuta.

Ekonomia irekiaren ardatza

EKONOMIA IREKIA	2009ko maila	2010eko maila	Aldakuntza, 2009/2010 (%)	2010. helburua	Betetze maila 2010ean (%)	2012ko maila	2012ko helburua	Betetze maila 2012an (%)
Irekitze-maila (X+M)/BPGd (%)	42,2	49,8	18,1	41,6	119,7	54,9	61,5	89,3
Esportazioak/BPGd (%)	23,2	26,7	15,1	23,4	113,9	31,7	33,7	94,1
BRIC esportazioak/BPGd (%)	1,2	1,8	46,3	1,7	106,0	2,0	8,9	22,6
Atzerriko inbertsioa Euskadin BPGdren gain, %	1,2	0,4	-66,1	0,6	62,5	0,7	2,1	30,8
Euskadiren inbertsioa atzerrian BPGdren gain, %	2,2	3,0	38,4	1,9	157,4	1,2	2,5	48,0

ELPren indarraldian, euskal ekonomiaren nazioartekotzea neurtzen duten adierazle nagusietako batzuen bilakaera positiboa gertatu da (irekitze-maila eta esportazioak, batik bat), 2012. urteko mailak espero zirenak baino txikiagoak izan arren.

Gainerako adierazleei dagokienez, 2012an lortutako mailak planteatutako iguripenetatik behera daude. Etorkizunean, adibidez, Euskadik kanpoaldean egindako atzerriko inbertsioaren bolumena handitu behar dela ikusten da, inbertsio horrek 2012an %60 behera egin zuelako 2010arekin alderatuta.

Ekonomia berritzaile, ekintzaile eta teknologikoki aurreratuaren ardatza.

EKONOMIA BERRITZAILEA, EKINTZAILEA ETA TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA	2009ko maila	2010eko maila	Aldakuntza, 2009/2010 (%)	2010eko helburua	Betetze maila 2010ean (%)	2012ko maila	2012ko helburua	Betetze maila 2012an (%)
Eskatutako patente-kopurua milioi bat biztanleko	95,2	85,3	-10,4	92,5	92,2	84,5	102,5	82,4
I+Gko gastua, guztira (BPGdren %)	2,0	2,1	5,1	2,0	106,1	2,1	2,1	101,9
Enpresetako I+Gko gastua, guztira (BPGdren %)	1,5	1,6	6,0	1,5	103,9	1,6	1,6	100,0
I+Gko gastua ikertzaile bakoitzeko (€ milakotan)	123,3	122,8	-0,4	129,0	95,2	116,6	139,2	83,8
Sortutako enpresen saldo garbia	-2.600	-10.939	-321	0	0	-6.600	3.490	-189
Sortutako enpleguaren tasa garbia	-35.971	-8.978	75	11.777	0	-29.019	24.430	-119
Goi mailako hezkuntza duen biztanleriaren garrantzia (25-64 bitarteko biztanleen %)	54,5	56,4	3,5	43,9	128,5	46,6	45,7	102,1

Ekonomia berritzaile, ekintzaile eta teknologikoki aurreratuaren testuinguruan, adierazleen mailak ia-ia egonkorak izan dira 2009az geroztik. Euskadik ekonomiaren eta industriaren garapen lehiakoragoaren alde egindako apustua I+G jardueretan egindako inbertsio iraunkorrean islatzen da. Hala, I+G arloko gastua 2012an BPGdren %2,12 izan zen, 15EBren (%2,03) parean, baina iparraldeko herrietatik, Japoniatik edo Israeletik urrun, horietan %4 ingurukoa baita.

Hezkuntzaren arloan, goi mailako hezkuntza duen biztanleriaren garrantzia 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoak) 2012an espero ziren mailetatik gora dago oraindik ere. Hala, berretsi egin da Euskadi goi mailako hezkuntza (batik bat hirugarren sektorekoa) duten pertsonen kopururik handienak dauzkaten Europako eskualdeetako bat dela.

Alderdi negatiboan, sortutako enpresen saldo garbia eta bereziki enpleguaren bilakaera kezagarriak dira oraindik ere. Enpresa gutxiago desagertzen ari dira, baina oraindik lanpostu ugari galtzen ari dira. Horrela azaltzen eta justifikatzen dira Eusko Jaurlaritzak legegintzaldia hasi zenetik egindako txoke-planak.

Ekonomia iraunkorraren ardatza

EKONOMIA IRAUNKORRA	2009ko maila	2010eko maila	Aldakuntza, 2009/2010 (%)	2010eko helburua	Betetze maila 2010ean (%)	2012ko maila	2012ko helburua	Betetze maila 2012an (%)
Giza Garapenaren indizea	1,0	0,9	-6,7	1,0	93,4	0,9*	1,0	93,4
Biztanleko BPGd (€)	29.683	30.358	2,3	31.206	97,3	29.460	33.679,0	87,5
Biztanle landuneko BPGd (€)	65.672	67.508	2,8	70.770	95,4	72.191	76.378,0	94,5
Produktibitatea biztanle landuneko (27EB=100)	132,4	130,9	-1,1	133,3	98,2	128,5	136,3	94,3
Bizi-itxaropena jaiotzean	82,3	82,4	0,1	82,3	100,1	82,4*	82,9	99,4
Energia intentsitatea	141,0	136,0	-3,5	140,0	97,1	107,8	135,9	79,3

(*) Azken datuak 2010ean erregistratu ziren (**) 2011ko datuak

Euskadik geldialdi-zantzuak dauzka egonkortasun-adierazleetan. Abiapuntuko mailak eta gaur egungoak handiak dira, baina adierazle gehienek bilakaera negatibo samarra da.

Hala, Euskadik per capita BPGdko maila handiak dauzka, azken urteotan atzera egin duen arren. Ildo beretik, langile bakoitzeko produktibitateak ere behera egin du, 27-EBko batez bestekoa baino ehuneko 30 puntu handiagoa izan arren.

Lehiakortasun Foroaren ekarpenak

Ardatz bakoitzerako aurkeztutako lehiakortasun-adierazleen aginte-taulaz gain, Lehiakortasun Foroan (2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren esparruan sortutako gogoetarako eta ebaluaziorako gunea) parte hartzen duten erakunde-, ekonomia- eta gizarte-eragileek Plana ebaluatzeko prozesuan laguntza eman zuten. Lehiakortasun Foroak 2012ko apirilean bilera egin zuen Arabako Teknologi Parkean. Bilera hartan, euskal ekonomiaren ehun bat ordezkariak 2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren bilakaera ebaluatu zuten. Ebaluazio horren emaitza gisa, politika publikoetan hobetu beharreko arlo batzuk identifikatu zituzten, Euskadiren lehiakortasuna sustatze aldera. Hona hemen arlo horietako batzuk:

- ETEei laguntzea beren lehiakortasuna indartzeko, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen bitartez.
- Finantzaletaren arloko neurri berriak bultzatzea, bereziki ETEen arloan.
- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz biziberritzea.
- Berrikuntza zabaltzea eta teknologikoak ez diren beste alderdi batzuetara hedatzea, adibidez zerbitzu eta prozesuetara, eta kudeaketara. Horren barruan daude marketina eta salmentak, negozio-eredua, etab.
- Enpresen dimentsiorik onena aintzat hartzea, beren nazioartekotze edo berrikuntza proiektuei laguntzeko.
- I+Gri laguntzen jarraitzea.
- Jabetza intelektuala babestea, batez ere patenteei dagokien guztian.

Ikasitako gauzak

2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren ebaluazioa kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak plangintza estrategikoari begira ikasi dituen gauza batzuk hauek dira:

- **Industria bereziki nabarmentzeko** beharrezkoa, industria euskal ekonomiaren aldeko lehiakortasun-ingurunea sortu ahal duen eragilea den aldetik.
- **Hitzarmen politikoak eta erakunde-hitzarmenak arlo guztietan sendotu beharra.** Euskadi, bere gizarte- eta ekonomia-eredu propioari esker, azken hamarkadetan lehiakortasun-abantaila sortzeko gai izan da, eta hitzarmen horiek dira eredu hori egituratu duten elementuetako bat.
- Lehiakortasunaren eta bere palanka batzuen eta besteen arloetan (industrializazioa, berrikuntza, nazioartekotzea, etab.) **“bottom-up” plangintza estrategikoko ikuspegiak** ezartzeko aukera. Horren erakusgarri gisa aipatu behar dugu 2013ko lehenengo sei hilekoan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sail berriaren barruan egindako azterketa eta gogoeta prozesua. Prozesu horretan 75etik gora lagunek hartu dute parte, eta bereziki Eusko Jaurlaritzako talde teknikoek ezagutza kudeatzea azpimarratu zen.
- **Eragile anitzeko gogoetarako gune eta foroak** bultzatzen jarraitzeko beharrezkoa (Lehiakortasun Foroarekin bat etorritik). Gune eta foro horiek, gure ekonomiak orain arte egindako ibilbidearen eta gaur egungo egoeraren diagnostiko sendo eta patxadatsua oinarri hartuta, epe luzea hartuko dute arreta-gune gisa, eta Euskadirentzat etorkizunerako nahi dugun gizarteari eta ekonomiari buruzko ikusmolde konpartitua definituko dute, baita herri-ikusmolde hori taxutzeko fokalizatutako estrategiak ere.
- **Politika publikoen gobernantza argia** ezartzeko beharrezkoa, **erakundeen “kanibalismoa” saihesteko.** Gobernantza horren oinarriak **politiken plangintza, egikaritzapen, jarraipen, ebaluazio eta doikuntzako mekanismoak izango dira**, Jaurlaritzaren azken Lehiakortasun Planetan (beste batzuen artean) hasitako dinamika metodologikoaren etengabeko hobekuntzaren ildotik.

1.4. Euskadiko ekonomi eta industri koiuntura


1.4.1. Azterketa-esparrua

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak euskal industriaren sektorearen egoerari buruzko gogoeta egin du. Gogoeta hori erreferentzia gisa erabiliko da 2014-2016 Industrializazio Plan honetan biltzen diren politikak planifikatzeko. Azterlanen arreta-gunea gure industrian eragina duten ekonomia globaleko joera eta aldaketak identifikatzea izan da, eta horrez gain gure enpresa-sarea besteengandik bereizteko faktoreak eta lehiakortasun-desabantailako faktoreak hobeto ulertzea. Gogoeta horiek alderatuz, **lehentasunezko bederatzi erronka identifikatu dira. Erronka horiei Planaren bidez eta Jaurlaritzaren ekonomi sustapeneko beste ekimen estrategiko batzuen bitartez eman nahi zaie erantzuna.**

Euskadiren ekonomi eta industri koiunturaren diagnostikoaren abiapuntuak hauek dira: bai euskal ekonomiaren azterketa, 2013-2016 aldiko X. Legegintzaldiko Gobernu Programaren eta EGLSren 2013-2016 aldiko Jarduketa Planaren oinarri dena, bai 2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren ebaluazioaren ondorioak.

EGLSren zuzendaritza batzuek eta besteek eta Lehendakartzako Ogasun eta Finantza Saileko hainbat ordezkari laguntza eman dute diagnostikoa egiteko. Azterketarako erabilitako kanpoko informazioaren iturriak batik bat hauek izan dira Eustat, Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Orkestra, eta Europako Batzordea.

Euskal industriaren azterketa-esparrua eta erronken lehentasunak




1.4.2. Nazioarteko ekonomi eta industria ingurunearen gakoak

Planaren ekonomi testuinguru orokorra

Industrializazio Planaren definizioa **orokorrean aldakorra den testuinguru ekonomiko batean egiten da**. Munduko eskualde gehienak, espero zen bezala, duela gutxi modu sendoan hazten hasi dira. Bitartean, mendebaldeko herriak, eta bereziki Europakoak, egiturazko krisi luzea jasaten ari dira eta apurka suspertzen hasi dira. Datozen urteen ezaugarriak antzekoak izango dira: **urruneko eskualdeak haziko dira eta gure ingurunerik hurbilenean susperraldi motela gertatuko da**.

BPGdren hazkunde zenbatetsia, prezio konstanteetan

2014ko hazkundearen %, 2013arekin alderatuta, 2014-2018 aldiko hazkunde konstantearen urteko tasa




Iturria: FMI (2013ko urria)

Euskadi ez dago errealitate horretatik urrun. 20 urtez etengabe hazi gara, eta horri esker ongizate-maila handiak lortu ditugu eta European aberastasun-mailarik handienak dituzten eskualdeetako bat izan gara. Horren ostean **krisi sakon batean bizi izan gara 5 urtetik hona. Krisi horren ondorioz 100.000 lanpostutik gora desagertu dira 2007az geroztik, eta enpresa-sare guztian neke-zantzuak ikusten dira**.

Epe laburrean, Euskadiko testuinguru ekonomikoa antzekoa izango da. **2014an hazkunde moderatua egongo da eta ekonomia apurka suspertuko da, Espainiako eta Europako ekonomiarekin batera**. Izan ere, gure ekonomia neurri handi batean barneko kontsumoaren, Espainiarekiko merkataritzaren eta Europarako esportazioen mendean dago.

BPGd errealaren bilakaera Euskadin, Espainian eta 15-EBn (2006-2012) eta 2013-2016 aldirako aurreikuspena
Urte arteko aldakuntza %-a



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza; Europako Batzordea; Eustat; FMI

2014-2016 aldiko Industrializazio Plana berriaren diseinua testuinguru honetan planteatzen da: gure enpresa-sareak eragozpen handiak dauzka krisia baino lehenagoko jardura eta enplegu mailetara itzultzeko eta merkatu globalizatueta berme nahikoekin lehiazteko.

Horregatik, plan honek krisi luzearen ondorioz **zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko laguntza-neurriak aurreikusi beharko ditu, eta industria aurreratu bateranzko bidean eraldatzeko politikekin konbinatu**. Industria horrek etengabeko berrikuntzaren alde egin beharko du, eta bere eskaintzaren balio erantsia indartu beharko du, merkatu globalean kokatuta. Gainera, epe labur eta ertainean, gure industriak **enpresa-kostuen eta produktibitatearen arteko desorekari edo kredituen murrizketari** egin beharko die aurre.

Gure ekonomiak errealitate ekonomiko konplexu bati egin beharko dio aurre legegintzaldi honetan. Horrez gain, Herri Administrazio guztiek baliabide urriak izango dituzte, **aurrekontu-egonkortasunaren** esparru berriaren ondorioz.


Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza publikoen iraunkortasuna (iraunkortasun hori EBren Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunak eta Estatuko Gobernu arteko zerga Itunak definitzen dute) bermatzea helburu duen legedi berriak behartuta, defiziteko eta zorreko eskakizun zorrotzak bete behar dira, eta horrek gastu publikorako ahalmena murrizten du.

Euskadiko administrazioek zerga eta finantza arloko autonomia handiagoa dute, baina aurrekontu-egonkortasuneko eskakizunen mendean daude Estatuarekiko akordioen bitartez. Hortaz, **enpresen lehiakortasun-indargarria babesteko duten ahalmena diru-sarrera publikoen bilakaeraren arabera izango da. Hain zuzen ere, diru-sarrera horiek hazkunde moderatua izango dute, espero den hazkunde ekonomikoarekin bat etorritik.**

Euskal industriaren eragina duten joera eta aldaketa orokorrak

Azaldu diren aldaketa ekonomikoen eta mundu mailako aldaketen sustraietan joera eta aldaketa global batzuk daude. Joera eta aldaketa horiek euskal industriaren eragina dute, eta eragina izaten jarraituko dute epe labur eta ertainean. **Enpresa eta sektore batzuek eta besteek, eta herriak berak joera horiei ematen dien erantzunak baldintzatuko ditu gure industriaren eta gure ekonomiaren etorkizuneko bilakaera eta lehiakortasuna.**

Industria-jardueran eragin zuzena duten bederatzi joera



1. **LEHIAKORTASUN IRAUNKORRA?** Enpresa bat lehiakorra izango da baldin eta **bere produktibitatea denbora igaro ahala etengabe hobetzeko gai bada, eta lehiakortasun-abantailak sortzen baditu enpresarentzat berarentzat eta gizartearentzat.** Mundu osoan, enpresa batek batez beste 40-45 urteko bizitza dauka. Ingurunearen konplexutasunak, lehiak eta industrien eta jardueren bilakaerak berak egunez egun "bizi-itxaropen" hori murrizten dute eta une bakoitzean eskuratutako lehiakortasun-abantailen iraunkortasuna eragozten dute; bestalde, abantaila berriak etengabe aztertu eta garatzea eskatzen dute.
2. **SEKTORE BARRUKO ZEIN SEKTORE ARTEKO LANKIDETZA** Egunez egun lehiakide berriak agertzen dira, zeharkakoak, sektore-planteamendu lineal eta independenteetatik urrun geratzen direnak. Negozio-aukerak sektore tradizionalak teknologia berri konbergenteekin gurutzatzen direnean sortzen dira, eta beroriei ekiteko lankidetzak-estrategiak behar dira, balio-kate osoak barnean hartzen dituztenak, balio-kate desberdinen artekoak zein lehiakideen artekoak. Beraz, lankidetzak ezinbestekoa da lehiakorrago izateko, dimentsioa hartzeko, fabrikaziorako ahalmenak osatzeko, berritzeko, beste batzuekin batera merkaturatzeko, inbertitzeko, instalazioak konpartitzeko, nazioartekotzeko, etab. **Enpresa-estrategia itxi eta indibidualak gero eta garrantzi urriagoa dute gero eta konektatuago dagoen mundu batean.** Mundu honek irekita egotea eskatzen du, balioa ekarriko duten konfiantzazko enpresa-harremanak bilatu eta taxutzean.
3. **TEKNOLOGIA BIZKORTZEA** **Teknologiak esponentzialki bizkortzen du bere garapena, gero eta garrantzi handiagoa du jarduera guztietan,** eta desberdintze-faktore bihurtzeaz gainera, bizirauteko ezinbestekoa da mendebaldeko kostu erlatibo handiko herrialdeetan. Enpresek planteatu behar dute beren eskaintzan ezagutza zientifiko eta teknologikoa txertatzea, produktu berrien eta ekoizteko modu berrien bitartez. Alde horretatik, adibide dira **KET edo oinarrizko errazte- teknologiak.** Teknologia horiek industria tradizionalan zeharka aplikatzen dira, eta lehiakortasuna benetan indartzen duten elementuak dira. Enpresek teknologiak eskuratzeari eta erabiltzeari begira, efizientzia handiagoko mekanismoak egituratzeko garaia da.
4. **ESKASIA ETA KONPLEXUTASUNA** **Lehengaien, energiaren, finantzaketaren edo talentu kualifikatuaren eskasia.** Litekeena da industria-prezioek behera egitea (batik bat koke-lantegiak eta petrolioaren birfinketa, erazketa-industriak, metalurgia eta metalezko produktuak). Konplexutasuna lan-harremanetan, lidergo-estiloetan eta taldeen zuzendaritzan, antolaketa-egituretan eta "distantziaren kudeaketan" (nazioartekotutako enpresetan). Gai horietako askoren inguruan etorkizunera begira ageri diren egoerek behartuta, enpresek bitariko estrategiak erabili beharko dituzte oraina kudeatzeko (biziraupena, finantzaketa, hitzarmenak...) eta aldi berean, etorkizuna prestatzen dute beren sektoreko eta tokiko egoerari egokitutako ahalmen berezi eta berriez jabetuz, estrategiak (eta erakundeak) zaindu, aurreikusi eta definitzeko.
5. **ESKARIAREN GORAKADA:** Hazkunde demografikoa (batik bat garatzeko bidean dauden herrietan) manufakturaren munduko eskariaren eragilea izango da. Aurreikuspenen arabera, 2025ean 4.200 milioi pertsonak klase ertaineko ondasun eta zerbitzuak kontsumituko dituzte, 2010ean baino 1.800 milioi gehiagok. 2025ean, munduko kontsumo zenbatetsia 49 bilioi €-koa izango da, 2010ean baino 20 bilioi € gehiago. **Mundu osoan, manufakuratutako ondasunen eskariaren %70 garatzeko bidean dauden ekonomietatik egingo dira.**

6. **ESKARIAREN SOFISTIKAZIOA:** Merkatuaren eskaria eboluzionatzen ari da. **Eskaria gero eta sofistikatuagoa da industria-merkatuetan. Merkatu horietan, enpresa handiek gero eta maila handiagoa ezartzen dute kalitateari, zerbitzuari, epeei eta arazo eta gorabeheren konponketari dagokienez;** baliozko proposamenak neurri eskatzen dituzte, baita "giltza eskuan" direlako konponbideak ere. Industria arloan espezializazioa gero eta handiagoa da. Espezializazio horren ondorioz, industria-segmentu txikiago ugari sortzen dira, eta segmentu txikiago horiek gero eta produktu, zerbitzu eta arreta pertsonalizatuagoak eskatzen dituzte. Beste alde batetik, amaierako merkatuetan kontsumitzaileak polarizatzen ari dira. Kontsumitzailea prezio merkeko produktuak eskatzen hasi da (bere esperientziatik abiatuta, eta orain, beste produktu batzuetan aurreztu nahian), aldi berean, prestazio berriak edo «status» diferentea emango dizkioten prezio handiko produktuak eskatzen ditu; kontsumitzaile berbera, bi alderdi diferentekin.
7. **GOBERNUEN PROTAGONISMOA:** Gure inguruan inbertsioa eta laguntza publikoak murrizten ari dira. Egoera horretan, **governuek protagonismo berria hartu dute. Enpresei konponbide integralak eskatzen dizkiete mugikortasunaren, energiaren, uraren, etab.en arloetan dauzkaten beharrianetarako, baita epe luzeko konpromisoak ere, beren lurraldearekin.** Ekoizpenerako ezarpenak eskatzen dituzte, akordioak eta hornitzaileen eragintza ere bai, beste enpresa batzuei teknologia transferitzea, proiektuetan lankidetzan aritzea, ingurunearekiko gizarte-erantzukizuna izatea, etab. Laburbilduz, zein zonatan dauden, zona horren garapen ekonomikoan eta eraldaketa sozialean inplikazio handiagoa izan dezatela eskatzen diete enpresei, enpresaren eta gizartearen artean balio konpartitua sortzeko. Beste alde batetik, krisi-egoeran euskal enpresa-sarearentzat eta orokorrean gizartearentzat interesgarriak diren politika, estrategiak, laguntzak, etab. garatzeko eta egikaritzeko indargarria ematen dute. Gainera, beste eragile publiko eta pribatu batzuek proposatutako gomendioak modu proaktiboan entzutearen alde egiten dute.
8. **TALENTUAREN ALDEKO LASTERKETA OROKORRA** Langile kualifikatuen nazioarteko mugikortasun gero eta handiagoarekin batera **“talentuaren aldeko lasterketa globala” sortu da. Lasterketa horren ondorioz, erakundeak ulertzeko eta kudeatzeko moduan aldaketak sortuko dira.** Enpresek talenturik onena non lortu ahal duten jakin behar dute, eta gainera pertsonen kudeaketarako estrategia berriekin esperimendu behar dute, lanbide-garapenerako aukerak eta proiektuarekiko konpromisoa eskaintzeko.
9. **INDUSTRIAREN BERPIZKUNDEA:** Estatu Batuetan eztabaida sutsua dago bere manufaktura-industria “berpizten” ari den ala ez. Whirlpool, Otis, Caterpillar, General Electric edo Ford enpresek, beste askoren artean, “reshoring” mugimenduak egin dituzte, **lehenago kostu txikiko herrietara eraman ziren prozesuak Estatu Batuetara itzultzeko.** Beste herri aurreratu batzuk, esate baterako Alemania, Suedia edo Japonia, **industria-sektoreak bultzatzeko estrategia handiak** garatzen ari dira. Estrategia horien bidez, teknologia eta sistema aurreratuak xertatzeren aldeko apustua egiten dute, beren herrietan bertan modu lehiakorrean fabrikatzeko eta enplegua sortzeko.

Mendebaldean BPGd orokorrean eta modu sinkronizatuan murrizten ari da. Baliteke horren arrazoia arestian azaldutako aldaketa horiek izatea, merkataritzarako eta ekonomi jarduerarako oztopen eta mugen duela gutxiko desagerpenarekin bat. BPGdren murrizketa horrek ondorioz larriena industrian izan du. Hala ere, ñabardura bat azaldu behar da: **joera horien eragina era batekoa edo bestekoa da sektore batetik bestera, lehiakortasunaren palanken arabera.** Izan ere palanka horien arabera zehaztu ahal dira sektore eta azpisektore bakoitzerako negozio-logika nagusiak.

Industria-sektore globalen ezaugarriak, lehiakortasunaren palanken arabera
Intentsitate-maila

TALDEA	INDUSTRIA-SEKTOREA	Intentsiboa I+G+b eremuan	Intentsiboa eskulanean	Intentsiboa kapitalean	Intentsiboa energian	Intentsiboa merkataritzan	Intentsiboa balioan
34 Berrikuntza globala tokiko merkatuetarako	Industria kimikoa	Handia	Txikia	Handia	Ertaina txikia	Handia	Ertaina txikia
	Motordun ibilgailuak, trailerrak, atalak	Handia	Txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Garraiorako beste ekipamendu batzuk	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Makina elektrikoak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
28 Eskualde-prozesamendua	Makinak, ekipamenduak, eta gailuak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Gomazko eta plastikozko produktuak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Produktu metalikoen fabrikazioa	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Janaren, edarien eta tabakoaren industria	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
22 Energian eta baliabide naturaletan intentsiboak diren produktuak	Edizioa eta argitalpena	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Eguraren produktuak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Petrolioaren birfinketa, kokea, energia nuklearra	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Papera eta paper-orea	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
9 Teknologia globala / Berritzaileak	Mineraletan oinarritutako produktuak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Oinarritzko metalak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Ekipamendu informatikoak eta bulegoetako makinak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
7 Eskulanean intentsiboak diren produktuak	Erdieroaleak eta elektronika	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Tresna medikoak, optikoak eta doitasunezkoak	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
	Ehungintza industria, arropa eta larrua	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia
%	Altzariak, bitxiak, jostailuak eta beste batzuk manufakturarako balio erantsi globalaren gainean	Handia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia	Ertaina txikia

■ Handia ■ Ertaina handia ■ Ertaina txikia □ Txikia

Iturria: MGI

Euskadiren kasuan, Jaurlaritzaren asmoa **Industrializazio Planaren bitartez politika segmentatuak eta multzo-politika diseinatzea da**. Politika horiek gure industriarentzat diseinatuko dira, arriskuak murrizteko eta joera horien ondorioz sortutako aukerak aprobetxatzeko, eta Euskadiren enpresa-lehiakortasuna eta garapen iraunkorraren eta ongizatearen eredia indartuko duten estrategien garapena babesteko.

1.4.3. Euskadiko industri koiunturaren diagnostikoa


Industria euskal ekonomian, eta industriak krisian duen zeregina

Industria **gure ekonomian sustrai sendoak dituen eta historian leku garrantzitsua duen jarduera da**. Euskadiren eragile nagusia da aspalditik. Bere ekarpen zuzena balio erantsi gordinaren laurden bat da, eta ekonomiaren gainerako sektoreen gainean biderkatze eta arrastatze-eragina dauka.

Industriak euskal ekonomian duen garrantzia murriztu egin da. Hala ere, murrizketa hori testuinguru honetan kokatu behar da: industria-jarduera orokorrean deszentralizatzen eta kostu txikiko herrietara eramaten ari da, mendebaldean zerbitzuen ekonomia gora egiten ari da, azaleratzen ari diren herriek gero eta parte-hartze handiagoa dute industria-ekonomian eta gaur egungo krisiak eragin larria dauka ekoizpen-ekonomian.

Euskadin, industriak mende hasieran balio erantsi gordinaren %30 egiten zuen. 2012an, aldiz %23 egiten zuen. Hala eta guztiz ere, euskal industria-sektoreak garrantzi handiagoa dauka gure ekonomian Europako herri gehienetan baino. 11.743 enpresa eta 163.925 lanpostu dira, Euskadiko enplegu osoaren %22. Gainera, pisu berezia dauka enpresa ertain eta handien segmentuan.

Jarduera-sektoreek 2011n Euskadiko eta erreferentzia-herrietako ekonomian zuten garrantzia BEGdren %a (merkatu-prezioak)



Iturria: Eustat; Eurostat


Industria-enpresak Euskadin 2013an, jarduera-adarraren eta enplegu-estratuaren arabera
Enpresa kopurua

	Erauzketa Industria	Manufakt. Industria	Energia	GUZTIRA % Euskadi
0-2 enp.	10	5.813	79	5.902 % 5
3-9 enp.	13	3.048	17	3.078 % 12
10-19 enp.	9	1.235	6	1.250 % 25
20-49 enp.	9	955	2	966 % 32
50- enp.	0	542	5	547 % 36
GUZTIRA % Euskadi	41 % 0,03	11.593 % 7,4	109 % 0,1	11.743 % 7
Enplegua % Euskadi	476 % 0,1	161.317 % 22	2.132 % 1	163.925 % 22

Iturria: Eustat

Euskal industriaren ezaugarria manufaktura-industria klasikoen nagusitasuna da, adibidez **Metalurgiarena eta produktu metalikoena eta Makina eta ekipamenduen**. Horiek batera sektoreko balio erantsiaren %38 egin zuten 2012an. **Energia** ere oso garrantzitsua da Euskadin. Sektorearen balio erantsian egiten duen ekarpen zuzena %15ekoa da, eta gainera, sektore hori xede duen manufaktura-jarduera ugariri eragiten die (energiaren sektorea 350 enpresak baino gehiagok osatzen dute, eta enpresa horiek orotara 44.000 milioi euroko fakturazio-bolumen osoa sortzen dute, baita 68.000 lanpostu zuzen ere, Energiaren euskal klusterrak kalkulatu duenez). Hala eta guztiz ere, **industria guztia industria gutxi batzuen inguruan biltzen da** modu nabarmenean. Gainera, sektorearen errealitate horregatik da ulergarria sektorearen **maila teknologikoa batik bat ertaina** izatea.

Euskal industriaren balio erantsi gordina, faktoreen kostutan
2011; euskal industriaren BEGdren gaineko %




Oharra: Beste enpresa-industria batzuen artean hauek daude: Zementua, karea, igeltsua eta bestelako industria ez-metalikoa (%2), Produktu informatikoak eta elektronikoak (%2), Konponketa eta instalazioa (%2), Farmazia produktuak (%2), Altzarigintza (%1), Koke-lantegiak eta petrolio finitzaileak (%1), Industria kimikoa (%1), Ehungintza, jantzigintza, larruaren eta oinetakoaren industria (%1), eta bestelako enpresa-industriak (%1)

Iturria: Eustat

Euskadik **industria-enpresa txiki eta ertainen sare sendoa dauka**. Alemaniako industria-enpresen tamainara heltzen ez garren arren, enpresa txiki eta ertainak gure ekonomian enpresa guztien %22 dira, Espainiako %17aren, Frantziako %14ren edo 15-EBko %19aren aldean. Hala ere, Euskadin tamaina handieneko enpresak **erreferentzia-herrietako enpresa baliokideak baino txikiagoak dira**. 20 eta 250 langile bitarteko enpresa bakoitzeko enplegua batez beste 55 pertsonakoa da Euskadin; Frantzian, aldiz, 65, Alemanian 70 edo Espainian 99. Enpresa handi bakoitzeko enplegua batez beste 500 pertsonakoa da Euskadin; Frantzian, aldiz, 905, Alemanian 888 edo Espainian 678.

Manufaktura-industrien banaketa, plantillaren tamainaren arabera, Euskadin eta erreferentzia-herrietan, 2010ean

Guztizkoaren gaineko %-a




Iturria: Eustat; Eurostat

Euskal industria ez da ondo moldatu krisi garaian. 2009an, sortutako balio erantsi gordinaren %20ko doikuntza gertatu zen, eta balio hori ez da berreskuratu, baina erreferentzia-herri batzuetan bai. 2012ko industria-ekoizpena mende hasierako mailetan egon da. Hala, krisi aurreko garaian industria-enpresen **konkurtsu-prozesuak** 50 inguru izan ziren. 2008 eta 2012 bitartean batez beste 120 baino gehiago izan ziren, eta marka azken urtean hautsi da: **161 prozedura**.

2013-2014 aldian ez da espero jarduera nabarmen suspertuko denik, barneko kontsumoa eta inbertsioa makal dabilzalako eta erreferentziako nazioarteko merkatuetan espero den hazkunde txikia delako.

Euskadiko BEGdren eta BPGdren (merkatu-prezioak) bilakaera 2006-2012 aldian, eta 2013-2014 aldirako zenbatespena


Urte arteko aldakuntza %-a



Iturria: Eustat; Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Azpisektoreen arabera, krisian egondako bilakaeran gorabeherak egon dira. **Makinen eta ekipamenduko ondasunen, Garraio Materialen, Kautxuaren, Plastikoen eta Beiraren fabrikazioak edo Elikagaien Industria** krisia gainditzen ari dira beren jardueran doikuntza moderatua eginda (%10etik beherako doikuntza 2008 eta 2011 bitartean). Manufakturaren alde txarrean, **Metalurgia eta produktu metalikoen** fabrikazioak, euskal industriaren azpisektore nagusiak, bere balio erantsia %30 murriztu du 2008 eta 2011 bitartean. **Energiaren sektorea**, euskal industriaren garrantzi aldetik bigarren postuan dagoena, krisia ondoen jasaten ari dena da, eta %5eko beherakada izan du 2008 eta 2011 bitartean.

Euskadiko industriaren BEGdren bilakaera (faktoreen kostutan), azpisektoreen arabera 2008 eta 2011 bitartean; M€




Oharra: Beste manufaktura-industria batzuen barruan hauek daude: Zura, papera eta arte grafikoak (828M€ 2011; -%11 '08-'11), Material eta ekipamendu elektrikoak (786M€ 2011; -%13 '08-'11), Zementua, karea eta igeltsua eta bestelako industria ez-metalikoa (316M€ 2011; -%20 '08-'11), Produktu informatikoak eta elektronikoak (301M€ 2011; -%13 '08-'11), Konponketa eta instalazioa (291M€ 2011; -%6 '08-'11), Farmazia produktuak (275M€ 2011; -%13 '08-'11), Altzarigintza (196M€ 2011; -%27 '08-'11), Koke-lantegiak eta petrolio fitzekoak (189M€ 2011; -%24 '08-'11), Industria kimikoa (170M€ 2011; -%15 '08-'11), Ehungintza, jantzigintza, larruaren eta oinetakoaren industria (116M€ 2011; -%17 '08-'11), eta bestelako manufaktura-industriak (126M€ 2011; -%13 '08-'11) Iturria: Eustat

Euskal industriaren lehiakortasunaren bilakaera

Industriak ekonomian oraindik garrantzi handia dauka, eta gaur egun zailtasun handiak ditu krisia baino lehenagoko jarduera- eta enplegu-mailak berreskuratzeko. Baliteke horrek zerikusia izatea sektorearentzat esanguratsuak diren lehiakortasun-palanka batzuen bilakaerarekin.

Nazioartekotzea. 80ko hamarkadan nazioarteko merkatuetara irten zen. Joera hori urteen joan-etorrian sendotu eta areagotu da, eta horren ondorioz, orain esportazioa **gure ekonomiaren gordelekua** da krisi garai honetan. Urteko batez besteko hazkundea %3koa da 2006tik aurrera, eta 2013an 20.200M€ gainditu ditu. Industria da sektore esportatzaile nagusia. 2013an gutxi gorabehera 20.000M€ esportatu ditu (kopuru osoaren %98). Esportazioa gure BPGdren %30 baino gehiago da. Hala ere, Euskadin industriak duen garrantziak aditzera ematen du oraindik tarte dagoela **gure ekonomia gehiago irekitzeko**. Gainera, esportazioak 15EBn batez ere egiten dira: kopuru osoaren %54 izan ziren 2013an. Horrek esan nahi du **esportazio-merkatuak dibertsifikatu** behar direla (Euskadik BRIC herrietara egindako esportazioak kopuru osoaren %6 izan ziren 2013an, herri horiek munduko merkataritzaren %40 baino gehiago egiten duten arren).


Euskadiko esportazioaren bilakaera (2006-2013) M€



Iturria: Eustat

Euskadik eta Europako erreferentziako eskualdeek esportaziorako duten joera. 2011

% BPGdren eta Nekazaritza eta arrantzako + industriako BEGdren gainean




Iturria: Eustat

I+G+b. Euskadik aspalditik ezagutzaren eta berrikuntzaren aldeko apustu handia egin du, hori garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna bultzatzeko funtsezko bitartekoa delakoan. Apustu hori datu hauetan agertzen da: **I+G arloan Euskadiko BPGdren %2,12ko inbertsioa egin da 2012an** (27EBn %2,07koa eta Espainian %1,29koa, Eurostaten 2012ko datuak). Apustu horren oinarria Zientzia Teknologia eta Berrikuntzako Euskal sistema konplexu eta osoa da, eta Enpresekin, Administrazioekin eta Irakaskuntza Publikoarekin inbertsioaren alde egindako apustu konpartitua. **Euskal industriak gastutik 449M€ I+G arloan egin zituen, enpresa-inbertsioaren %43** (ekonomian duen pisutik, BEGdren %23tik gora).

Gainera, nabarmentzekoak dira azken urteotan fabrikazio aurreratuan sortutako **ahalmen zientifiko eta teknologikoak** (ezagutzaren aldetik trinkoa den fabrikazioarekin zerikusia duten jarduerak dira fabrikazio aurreratukoak). Gaur egun fabrikazio aurreratuan Euskadin **I+G estrategikorako fondo**en %36 biltzen dira, baita sareko **ikertzaile guztien %46**. Hala ikusten da Euskadin lehentasunezko arlo horren aldeko apustua egin duela.

Izan ere, Euskadik gaur egun **sustapen ekonomikoko hainbat tresna dauka gure manufaktura industriaren lehiakortasuna eta sofistikazioa indartzeko**. Tresna horien artean hauek nabarmentzen dira: 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean Fabrikazio Aurreratuak garapenerako zeharkako gaitasun gisa duen lehentasuna; Fabrikazio Estrategia Aurreratu, garapen zientifiko, teknologiko eta industrialaren arteko estrategia konbinatua; CIC Margune, arlo horretan hainbat eragilek egindako ikerketaren koordinatzaile eta bultzatzaile gisa; eta Euskadik enpresen lankidetzeta eta lehiakortasuna sustatzeko dauzkan industria-klusterren elkarrekin kopuru handia.


Euskadiko I+G arloko inbertsioaren xehetasuna 2012an, finantzaketaren eta egikaritzapenaren ikuspuntutik;
M€



Iturria: Eustat


Inbertsioa. Euskadik erreferentziazko posizioa dauka enpresa-inbertsioari dagokionez, Estatuaren eta Europako herrien aldean. Hala ere, **euskal inbertsioak beharakada etengabea izan du krisi ekonomikoa hasi zenetik, urtero %6,4 (HKUT '07-'11).** Finantzatzeko eragozpenek, salmenten jaitsierak eta iguripen txarragoek aditzera ematen dute inbertsioak 2013an ere behera egiten jarraituko duela, batez ere ekipamendu-ondasunetan eta eraikuntzan, erritmo motelagoan izango bada ere. **Euskadik atzerrian egindako ekoizpen-inbertsio zuzena ere murriztu egin da azken urteotan (2008-2010 epealdian %70 egin zuen behera aurreko hirurtekoarekin alderatuta).** Hala ere, egindako ekoizpen-inbertsioak epealdiko inbertsio osoarekin alderatuta duen proportzioa ia-ia egonkorra izan da.

Enpresa-inbertsioa Euskadin, Espainian, 27EBn
2001-2011, BPGdren gaineko %a



Iturria: Eustat

Euskadik eta Espainiak atzerrian egindako ekoizpen-inbertsio zuzena. 2005-2010, milioi euro




Iturria: Eustat

Enpresa-kostuak. Euskal industriak krisia gertatu baino lehenagoko 20 urteetan izandako hazkunde ahalsua kostuaren eta produktibitatearen arteko orekan oinarritu zen. Hala ere, euroan sartu ginenetik, eta kreditu-burbuilak emandako bultzadarekin, Euskadik kostuen aldetik hazkunde handiagoa izan zuen produktibitateko irabazien aldetik baino, eta horren eraginez apurka gure lehiakortasun-abantaila murriztu zen. Krisia hasi ondoren, **euskal ekonomiak enpresa-kostuen aldetik izan duen doikuntza txikiagoa da gure ingurunean baino**, bai kostu horien (energia, finantzaketa) gaineko eragina izatea zaila delako, bai lehiakortasuna prezioen aldetik berreskuratzeko ahalik eta enplegu gutxien suntsitzearen aldeko apustua (lan-kostua) egin delako.


- **Soldata-kostuak** hazi egin dira azken urteotan Euskadin, baina hazkunde horren erritmoa moteldu egin da 2008az geroztik. Dena dela, estatuan baino neurri txikiagoan gertatu da hori. Sektorez sektore, industria da oraindik ere ondoen ordaintzen den ekonomi jarduera. Horrez gainera, lan-kostu unitario nominalak (batez besteko soldata nominala / batez besteko produktibitate erreala) gora egin du, euroguneko batez bestekoa baino gehiago, eta, horrenbestez, prezioek lehiakortasuna galdu dute.

Manufaturako soldatapeko langileen kostua
2008-2011; m€



Iturria: Eustat; Eurostat; EBZ


Lan-kostu unitarioa manufaktura-industrian
2006-2008; %



Iturria: Eustat; Eurostat; EBZ


- Krisi ekonomikoa eragin zuen finantza krisiak Espainian eta Euskadin irauten du oraindik. Gure enpresen **finantzaketa-kostuak** handiak dira euroguneko erreferentziatzko eskualde batzuekin konparatuz gero. Horren ondorioz, euskal sektore pribatuarentzako kreditua mugatua izan da azken urteotan (%10 baino gehiagoko beherakada izan du 2008ko mailetatik, -9.000M€ gutxi gorabehera). Hala ere, finantzaketa-merkatuak berriro irekiz gero eta epe labur edo ertainean finantzaketan tentsio txikiagoak egonez gero, enpresa-sarearentzako kredituak berriro eman daitezela espero da. Kostu horiek eta gure sarearen batez besteko zorpetze-maila aztertuz, gure enpresen tamaina kontuan hartuta, argi dago finantzaketa nahikoa eskuratu behar dela, baldintza onetan, bereziki tamaina txikieneko enpresen kasuan.

Batez besteko zorpetze-ratioa, euskal industriaren ondare garbiaren gainean. 2009-2011; %




Iturria: Eustat

Besteren baliabideen kostua (finantza-gastuak / eska daitekeen pasiboa) euskal industrian 2009-2011; %



Iturria: Eustat


Enpresa-finantzaketa-aren kostua 2011-2012; (%i)



Iturria: Eurostat; EBZ

- **Energia-kostuetan** elektrizitateak gorakada handia izan du 2008az geroztik, batik bat prezioak apurka doitu direlako Espainiako elektrizitate sistemaren kostuei egokitzeko eta dagoen tarifa-defizita murrizteko. 2012ko amaieran, Espainian eta Euskadin industriako Mwh-ren prezioa 115€ zen. Eurogunean, aldiz, 96€ zen, eta Alemanian 90.


Euskal industriaren energia-kostua, kostu guztien gainean. 2008-2011; %



Oharra: eraikuntza-sektorea ez da sartzen industria-sektorean

Iturria: Eustat, EEE

Industriaren energia-kostua - elektrizitatea 2006-2013E; €/Mwh



Iturria: Eustat; Eurostat; EBZ

Ingurunearen baldintzak: Ekonomiaren jardueran egondako beherakadaren ondorioz, Euskadin lan-merkatua ere etengabe hondatu da. Prozesu hori are larriagoa izan da 2012an, langabezia-tasa %12,1ekoa izan baita. Lan-merkatuaren nariadura hori Euskadin aldi baterako kontratuen kopuruak izan duen gorakadan ere ikusten da. Gainera, oraindik ere **produktibitate-gapa**² dugu, Europako erreferentziatzko herrialde eta eskualdeekin alderatuta, eta nabarmentzen da, batez ere, egungo atzeraldian; izan ere, Euskadiko jarduera erdi-bidean dago, Espainiako eta 15-EBko bilakaeren artean.

² Dok Ekonomiaz XXn argitaratutako "Crecimiento, competitividad, progreso técnico y distribución de la renta: análisis de la economía vasca desde 1980 y expectativas hasta 2015" artikulua adierazten du Europarekiko konbergentzia-prozesua, barne-produktu gordinari dagokionez, lan-indarraren hazkundera oinarritu dela, batez ere, azken hamarkadetan, eta Euskadiko produktibitate erlatiboak, berriz, aurrerakada neurritsua izan duela 80ko hamarkadaz geroztik. Horrez gainera, lan-kostu unitario nominalak (batez besteko soldata nominala / batez besteko produktibitate erreala) gora egin du, euroguneke batez bestekoa baino gehiago, eta, horrenbestez, prezioek lehiakortasuna galdu dute.


DAFO Analisia. Laburpena

Jarraian, egindako diagnostikotik abiatuta, industri koiunturaren AMIA azterketa labor bat azalduko da, laborpen gisa:

Barnekoa	Kanpoko
<ul style="list-style-type: none"> • Atzeraldia euskal ekonomian orokorrean, eta industrian bereziki (hazkundera moteltzea, BEGdren gainean duen garrantzia murriztea, ekoizpenaren atzerakada eta euskal industriaren produktibitatearen beherakada). • Hondatutako lan-merkatua (langabezia-tasa handia, aldi baterako kontratuen kopuru gero eta handiagoa, EEEen kopuru handia, etab.). • Lan gatazkak • Enpresen zorpetze handia • Mundu osoan lehiatzeko kostu handiak (langileenak, finantza-kostuak, energiarenak...). • Industria-enpresen bajen gorakada kezagarria eta alden beherakada iraunkorra • Euskal inbertsioaren beherakada etengabea, krisi ekonomikoaren hasieratik. • Bezeroen negoziazio-ahalmen gero eta handiagoa eta hornitzaileen mendetasun-arriskua. • Gapa I+G arloan, EBko herrien aldean • Industria-sektorean maila teknologikoa batez ere ertaina-txikia. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erreforma elektriko berria • Euskal enpresen merkatu naturalen atzeraldia. • Hazten ari diren merkatuen urruntasuna. • Industria-jardueraren susperraldiak ez epe laburren, bameko kontsumoaren eta inbertsioaren ahultasuna dela-eta. • Litekeena da industria-prezioek behera egitea (batik bat koke-labeak eta petrolioaren birfinketa, erauzketa-industriak, eta gainera metalurgia eta metalezko produktuak). • Erabaki-guneak galtzea. • Euskal enpresen merkatu naturaletan nazioarteko lehiakide berriak sortzea. • Industria-inbertsioko proiektuetarako finantzaketaren oztopoak.
<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko per capita BPGd, Europako herrialde eta eskualderik aurreratuenean parean. • Industria- eta energia-jarduerak euskal ekonomiaren BEGdan, esportazioetan eta produktibitatean daukaten ekarpen nabarmena. • Industria-ekosistema osoa. • Industria mundu osoko ekonomian hazteko aukera handiak daukaten sektoreetan oinarrituta dago. • Proiektu berriak, azaleratzen ari diren sektoreetan. • Gero eta gastu handiagoa euskal industriaren I+G arloko jardueretan. • Erreferentziazko posizioa enpresa-inbertsioari dagokionez, Estatuaren eta Europako herrien aldean. • Nazioartekotzearen aldeko kultura eta sentsibilizazio gero eta nabarmenagoak enpresetan. • Enpresen konpromisoa. • Gaitasun handiko giza-kapitala. 	<ul style="list-style-type: none"> • Industria-hazkunderaren iguripen handiak mundu osoan. • Industria-jarduera batzuk (makinen eta ekipamendu-ondasunen fabrikazioa, garraiorako materiala, kautxua, plastikoa eta beira, edo elikagaien industria) krisia gainditzen hasi dira, eta beren jardueran doikuntza moderatua egin dute. • Bakea, ekonomiaren eta enpresen aktibo berria. • Gaitasun zientifiko eta teknologikoen erabilgarritasuna, industria arloan ustiatzeko. • Euskadin ezarritako multinazionalen balioa sortzeko duten ahalmena. • Atzerriko inbertsioaren erakarpena • Enplegu-suntsiketaren faserik larriena gainditzea. • Finantzaketa-merkatuak berriro irekitzea eta epe labur eta ertainen finantza-tentsiorik txikiak egotea, eta horren ondorioz inbertsioen perspektibak hobetzea. • Datozen urteetan egon daitezkeen ekintzaile berriak

1.4.4. Euskal industriaren lehiakortasunaren erronkak

Joera globalen eta Euskadiko testuinguru ekonomikoaren azterketatik abiatuta, euskal industriak datozen urteotan izango dituen erronka nagusiak identifikatu dira.



Industrializazio Plana 2014-2016 25

1. MANUFAKTURA AURRERATUA

*Etorbizunean ere, 30 edo 40 urte barru, Euskadik **produkzio-industriaren** pisu handiko ekonomia izatea nahi dugu? **Lehiakorra eta errentagarria** izan daiteke Euskadin ekoizten duen enpresa bat?*

- Erronka produkzio-jarduera zaharrak teknologikoki industria aurreratu bihurtzean datza. Horretarako, **kalitatearen eta balio erantsiaren** alde egin behar da etengabe, ingurunea kostu eta prezio baxuetan lehiatzekoa denez.
- "Ekoizpen aurreratua" izan behar dugu xede, eta oinarria **produktibitate eta zehaztasun handiko jarduerak** izan behar dira: **gero eta adimentsuagoak**, automatizatuagoak eta digitalizatuagoak; jasangarriak eta berdeak, prozesu garbiei, eraginkorrei eta adeitsuari esker; eta material, diseinu, bitarteko eta prozesu berriak erabiltzen dituztenak. Eta, noski, horien oinarrian, munduko kualifikazio gorenaren pareko talentua egon behar da.

2. MUNDU MAILAKO NAZIOARTEKOTZEA, TOKIKO EGOKITZAPENAREKIN

*Zein zeregin bete nahi du enpresa batek "jokaleku" globalean? Modu berean **nazioartekotu** behar dira enpresa guztiak?*

- Globalizazioa errealitatea da: **bai lehia, bai negozio-aukerak mundu-mailakoak** dira orain; alegia, munduan gune nagusi berriak agertzen dira gaur egun. Ondorioz, balio-kateak zatikatu dira, eta hainbat alternatiba daude hainbat arlotan: hornikuntza, produkzioa, berrikuntza eta merkatu globala, batez ere goraka ari diren herrialdeetan; izan ere, herrialde horietan 80 milioi pertsona sartuko dira urtero munduko klase ertainean, 2030era arte.
- Anbizio globala eta merkatuan merkatuko toki egoerarako (kalitateari, diseinuari edo produktuen/zerbitzuen teknifikazio-mailari dagokienez) egokitzapen etengabea izango dira gure industria-enpresek, **nazioartean murgiltzean**, bere lehia-abantailak ingurune konplexu berrian irauterazteko eta garatzeko funtsezko palanka. Enpresa handi eta ertainen lana erabakigarria da txikiei bultzada bat eman, eta azken horiek nazioartera zabal daitezten.

3. MERKATURAKO HURBILKETA

Adi gaude gure bezeroen eta azken kontsumitzaileen beharrez, aurrea hartzeko? Saltzen lagunduko diot nire bezeroari? Haiekiko komunikaziorako kanalak irekitzen ari gara? Gure lehiakideetako batzuek merkataritza, merkatuaren adimenean, sustapenean, marketinean, marketan, etab.etan dauzkaten ahalmenak al dauzka?

- Industria-enpresa batentzat, erronka **merkatuarekiko harremanetarako kanal berriak garatzean datza**. Azken helburua merkatua ulertzea da, merkatuaren beharrez aurrea hartzea, bezeroen segmentu espezifiko bakoitzari egokituak eskaintza berriak diseinatzea, prozesuaren kulturatik “produktu eta zerbitzuen” kulturara aldatzea (produktu eta zerbitzu osagarriak, salmenta ostekoak, etab.) eta areago, urrats bat harago eginda, beren arazoetarako konponbide integralak aurkitzea, “bezeroaren esperientzia lantzea”, markak garatzea, baita marka horien posizionamendua ere, azken kontsumitzailearen ohitura eta portaerak deszifratzea, etab.

4. ERAGILE ANITZEKO LANKIDETZA

*Nola jartzen gara harremanetan enpresarekin? Zer bilatzen ari gara benetan aliantza batean? Gure aliatuen filosofia eta balioak aztertuko ditugu? Nola lortu ahal dugu **lankidetzaren eta aliantzaren** zalantzarik gabe **enpresa baten etorkizuneko proiektuaren zati izan daitezela**?*

- Koiuntura honen ezaugarriak mota guztietako baliabideen eskasia, arlo publikoak dituen jardun-aukera urriak eta lehiakide kualifikatuen ugartasuna dira. Bada, gero eta beharrezkoagoa da sarean lan egitea, **lehiakorrek izan ahal izateko**. Erakundeek beste eragile batzuekin **harreman sendo eta abantailatsuak** ehuntzeko gaitasuna, lehia-abantailak sorrarazteko elementuetako bat izan daiteke.
- Sarean konektatutako enpresa, elkarlotutako balio-kateen konstelazioa, enpresa hedatua edo irekia, etab., kontzeptu horiek guztiak gero eta maizago adituko ditugu gurean.

5. NEGOZIO-EREDUETAKO BERRIKUNTZA

*Enpresek argi al daukate non dauden euren **lehiakortasun-abantailak**? Beren negozio-ereduan zein elementu doitu behar dira “balioa sortzeko makinak” funtzionatzen jarrai dezan? Nola lortzen du enpresa batek “erritmoari eustea” eta etengabe lehiakorra izaten jarraitzea, gero eta konplexuagoa den ingurune batean?*

- **Negozio-ereduaren arloko berrikuntzak** aintzatespen eta publizitate gutxiago dauka. Berrikuntza horren oinarria, industria-enpresa baten benetako lehiakortasun-abantaila iraunkorra osatzen duten elementuak (balio-proposamena, funtsezko eragileak, baliabideak, balio-katea, etab.) identifikatzea eta etengabe eboluzionatzea da.
- Negozio-eredua berritzeak esan nahi du **balio erantsi handiagoko eskaintzak** garatu behar direla, bezeroen errealitate eta segmentu espezifiko bakoitzari egokituak; aliantza eta antolakuntza aldi-aldi berrikusi, etab.

6. LANGILEEN PARTE-HARTZEA

*Nola gaitzen ahal dugu gaur egungo **lan-harremanen** esparrua, etengabeko gatazkan oinarrituta badago? Nola lortu ahal dugu patronalaren, enpresaren eta sindikatuen arteko harremana “batura = 0” joko ez bihurtzea? Gure enpresek epe luzeko proiektu konpartiturik eskaintzen al dute?*

- Enpresek gaur egungo egoera gaitzen behar dute (lan-gatazkak, absentismo maila handiak, gaur egungo ingurune ekonomikoari egokitzen ez zaizkion soldadak, etab.), erakunde bakoitzeko **pertsonek artean konpartitutako konpromisoan** oinarrituta. Kontua ez da enpresa guztientzako eredu bakarra sortzea, baizik eta enpresa bakoitzean partaidetarako ad hoc formulak garatzea.
- Honetan datza erronka: **pertsonek artean oinarritutako erakundeak garatzean**, enpresak etorkizuneko proiektu partekatu bat garatzen ari diren gizon-emakumeen komunitateak direla ulertuta. Horregatik, enpresek eskemak garatu behar dituzte **talentua erakartzeko eta atxikitzeko**, unibertsitateetara eta lanbide heziketako ikastetxeetara hurbiltzeko, etengabe gaitasunak eskuratzeko, etab.)

7. OZTOPOEI AURRE EGITEA

*Nola jarraitu ahal dugu lehiakorrek izaten, dauden oztopoekin: **finantza-kostuak, energia-kostuak, lan-kostuak**, etab.? Zein beste eragozpen (lehengaien eskasia, prezioen jaitsiera, lehiakide berriak, eragileek arteko*

harremanen konplexutasuna, etab.) dauka gure industriak, jokaleku globalean lehiatzerakoan? Zein jardun-aukera dauka enpresa batek?

- Lehengaien, finantzaketaren edo talentu kualifikatuaren eskasiak, energiaren kostuak (gure lehiakideekin alderatuta eragiten duen diferentzialagatik) eta lan-harremanen, lidergo-estiloen eta taldeen zuzendaritzaren, antolaketa-egituren eta "distantziaren kudeaketaren" konplexutasunak (nazioartekotutako enpresetan) behartuta, enpresek bitariko estrategia erabili beharko dute: **oraina kudeatu** (biziraupena, finantzaketa, hitzarmenak, energia-erreforma berria...) eta aldi berean, **etorkizuna prestatu** estrategia berriak eta antolaketa-eredu berriak, berritzaileak eta diferentzialak eskuratzuz.

8. TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA APLIKATZEA

Teknologiaren **kostuak murrizteko edo merkatuan gure posizionamendua hobetzeko** iturria aurkitu ahal dugu? Nola eraldatu ahal ditugu gure negozioak teknologia aplikatuz, eta nola posizionatuko gara teknologiaren inguruan sortzen den ekosisteman? Munduan teknologien inguruan gertatzen ari denaren jakitun gaude? Teknologia horiek aztertzeke eta eztabaidatzeko gunea sortzen ari gara?

- Teknologiak eta ezagutzak **biderkatze-eragina izango dute lehiakortasun-abantailak eskuratzean**. Adibidez, teknologia konbergenteak, nanoteknologia, mikro/nano-elektronika, industria-bioteknologia, fotonika, etab. Edo, adibidez, fabrikazio aurreratua edo teknologia banatu berriak edo giza eskalako teknologiak (mugikorak, errobotak, 3D inprimagailuak, etc.), edozein enpresak eskuratu eta erabili ahal dituenak.
- Teknologia horiek eta beste batzuk eskuratzeko, behar bezala erabiltzea eta gaur egungo industria-prozesu eta -produktuetan aplikatzea, **lehentasun estrategikoa** izan behar da industria-sektorearen berrikuntza-ahalmena eta horri esker lehiakortasuna bermatzeko. Enpresen eta I+G+b arloaren arteko harremana hobetzea, "aire berbera arnas dezatela", landu beharreko erronka da

9. ENPRESA ETA ENPRESABURUA AINTZAT HARTZEA

Gizarteak enpresaburua herri baten ekonomi eta gizarte garapenaren funtsezko eragile gisa ikusten al du? Herritarrek ezagutzen al dituzte enpresaburuek euskal gizarte osoari ekartzen dizkioten onurak? Nola balioetsi ahal dugu industriak betetzen duen zeregina?

- Tamalez, gaur egun enpresaburuaren irudiak prestigioa galdu du. Gizartean zabal dabilen irudi hori ez dator bat enpresaburuak egiten duen ahalegin pertsonalarekin edo ondare aldetik egiten duen ahaleginarekin, ezta ingurunearentzat dakarren aberastasunarekin eta sortzen duen enpleguarekin. Horregatik, erronka **euskal enpresen ekarpena aldarrikatzean datza**. Alde horretatik arreta berezia jarri behar da enpresa-sareak eta enpresaburuek garapen ekonomikoan, **tokiko aberastasun eta ongizatearen sorreran** eta euskal sistema publikoaren iraunkortasunean egindako ekarpena, zergak ordaintzen dituzten aldetik (diru-bilketan egindako ekarpena, enpresaren konturako gizarte-kotizazioengatik, eta Espainiako sozietateen gainerako zergan Europako enpresek orokorrean eta Alemaniakoek bereziki egiten dutena baino handiagoa da: BPGdren gaineko %11, %10,6 eta %9,1, hurrenez hurren), **tokian enplegua sortzen dutelako** eta produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzen dituztelako, besteak beste.
- Enpresaburuak balioestea, funtsezko erronka da **ekintzaitzaren euskal sistema sendotzeko**. Izan ere, herritarrek pertsona horiei buruz duten iritzi negatiboak enpresa berriak sortzeko eragozpenak sorrarazten ditu.

2. II. multzoa: 2014-2016 aldiko Industrializazio Estrategia

2.1. Planaren printzipioak

Industrializazio Planak hainbat printzipio hartzen ditu kontuan, bere jarduera oinarritzeko. Printzipio horiek bat datoz Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailburu Arantza Tapiak Eusko Legebiltzarrean bere Sailaren jardueraren lehentasunak aurkeztean aurkeztu zituen printzipioekin³:


- Epe laburrerako eta ertainerako ekintzak eta emaitzak: Alde batetik, eta lehenbailehen, krisiak EAEko enpresetan eragindako ondorioak indargabetzea; eta bestetik, gure ekonomia-ehunak lehiakortasunean aurrera egitea sendotzea epe ertainean, hobekuntza etengabea eta iraunkorra lortzeko funtsezko bidea den aldetik.
- **Produktzio-industriaren aldeko apustua:** Giltzarrikoa da, industriak duen pisuagatik eta herrestan eramateko gaitasunagatik; izan ere, aberastasuna eta enplegua sortzeko eragile nagusia da (industriako enplegu bakoitzak 2-5 enplegu berri sortzen ditu ekonomiaren beste segmentu batzuetan) eta nazioartekotzearen eta I+G+b ereduaren funtsezko bultzatzailea. Fabrikazio aurreratuago, eraginkorrago eta jasangarriago baterantz zuzendu nahi dugu industria. Industriak teknologia eta material berriak erabili behar ditu, baina ez hori bakarrik. Gainera, diseinua eta merkaturatzea berri behar ditu, baita negozio-eredu eta kudeaketa-sistema berriak ezarri ere.
- Zeharkako ikuspegi ekonomikoa: Sail honen ardurapeko sektore-eremu guztiak (Industria eta Energia) aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzearen enpresa-ikuspegitik aintzat hartzen dira, lurralde-garapenean, identitatearen sendotzean eta beste hainbat alorretan sortzen diren eragin positiboak ahaztu gabe. Gaur egun, jarduera ekonomikoa ez da ulertzen lurraldearekiko eta gizartearekiko interakziorik gabe.
- Ahaleginak fokalizatzea: Alde batetik, baliabide publikoen erabileraren efizientzia handitzeko beharra ikusita, eta bestetik, egoera ekonomikoaren ondorioz eta herrialdearen tamaina txikiagatik dauzkagun baliabide mugatuak kontuan hartuta, garbi ikusten dugu politikak eta ekintzak fokatu behar direla inpaktu handiena eragin dezaketen arloetan, eta ondorioak etengabe ebaluatu behar direla, haien arabera jokatzeko. Horrek esan nahi du, adibidez, proiektu berritzaileak eta bultzatzaileak behar ditugula, enplegua eta eskaintza bereizgarriak sortzeko modukoak.
- Jarduera-kate osoak bultzatzea: Gobernuaren politikek, aurretik esandakoaren ildotik, hau dute xede: ekonomia-jarduerako kate osoak sendotzea (ikerketaren alorretik merkatura iritsi arte), kate horien mailen arteko loturak zein kate desberdinen arteko harremanak aintzat hartuta. Azken batean, beste urrats bat eman nahi dugu klusterizazio-etapa berri bat lortzeko bidean; hain zuzen, herrialdeko ekonomia-jarduera osatzen duten eta elkarren artean lotura duten balio-kateen multzoaren klusterizazioa, eta beraz, industrien balio-kateak osotasunean kontuan hartzea eta sektore-ikuspegi klasikoa gainditzea.
- **Politikak zatika antolatzea:** Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean *ad hoc* politika eta irtenbideak diseinatu nahi ditugu, enpresa bakoitzari edo antzeko ezaugarriak dituzten enpresen multzoari egokিতuta, honako hauek kontuan hartuta: enpresa horien bilakaera- eta heltze-fasea, neurria, eta zein jardueratan diharduten. Ekonomia sustatzeko sistemako beste eragile batzuekin lankidetzan, Planak zatikatze-lan horretan aurrera egiteko asmoa du, bai politikei dagokionez, bai eta enpresei arreta emateari dagokionez ere.
- Pertsonak erdigunean: Pertsonak dira enpresen funtsezko aktiboa. Enpresek, lehiakortasuna hobetzearren, langileek gehiago parte hartzeko prozesurik abiarazten badute, Planak lagundu egingo die. Helburua izango da pertsonen hazten laguntzea, lanbidean eta pertsona modura garatzeko moduak sortzea. Epe luzerako horrelako proiektuak sortzen laguntzeko asmoa daukagu.
- Eragile arteko lankidetzak: Erakunde arteko lankidetzak eta lankidetzak publiko-pribatua behar ditugu, ezarritako helburuak lortzeko baditugu. Horretarako, orain arteko formulatutako batzuk berriro asmatu beharko ditugu, agortzen hasiak ote dauden itxura baitute. Sailak lider izan nahi du lankidetzak-bide horietan, hain zuzen, helburuak hobeto lortzeko eta baliabideak efizientzia handiagoz erabiltzen lagunduko duten lankidetzak-bideetan.
- Lurralde arteko oreka: Euskadi lurralde orekatua da, eta horixe da hain zuzen lurraldearen indargunerik handienetako bat. Eusko Jaurlaritzaren ustez, lehentasunetako beste bat da gure lurralde, eskualde eta udalerrietako kale, baserri eta itsas bazterrak garatzea. Gure ustez, nekazaritzako elikagaien arloa eta arrantza funtsezko baloreak dira Euskadira eta bertako herritarrentzat, eta ez soilik ekonomiarako eta enplegurako dakarten guztiarengatik, baita gure nortasunarekin duten loturarengatik ere. Horretarako, garbi dago zer egin behar den: lurralde, eskualde edo herri bakoitzera egokিতutako ekoizpen-ereduak indartu behar ditugu; eredu horiek bata bestearen bide-lagun izan behar dute; hurrengo belaunaldiek ere lan horietan jarraitzea lortu behar dugu; eta pertsonak izan behar du denetan gauzarik garrantzitsuena, politika, ekonomia edo gizarte-arloko beste ezeren aurretik.

³ Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailburu Arantzaren agerraldia, Legebiltzarreko batzordean, 2013ko otsailaren 8an

2.2. Planak jorratutako esparruak

Gure industriaren historiari eta orainari buruz egindako diagnostikoaren aurrean, eta etorkizunera begira, Eusko Jaurlaritzak industriaren lehiakortasuna bultzatzeko egin dituen apustuak agertzen ditu 2014-2016 aldiko Industrializazio Plan berriak. Lehiakortasunaren bultzada hori lortzeko, gure esku dauden industria-sustapeneko tresna eta baliabide guztien agerraldia egingo da, lehenetasunak ezarrita, eta gainerako plan estrategikoekin eta sailtako planekin koordinatuta, baldin eta beste horien ekintzek euskal industrian eragina badute.

2014-2016 Industrializazio Planaren norainokoa: jarduketako-eremuak, tresna nagusiak eta zerikusia duten Sailak eta planak



2.3. Planaren helburu estrategikoak

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren helburua **merkatu globalean euskal industriaren lehiakortasuna** indartzea da. Horretarako, enpresa-proiektu bideragarrien berregituraketa eta biziraupena babesteko dira, industriak euskal ekonomian duen garrantzia mantendu eta indartuko da, enpresa-sarearen eskura dauden finantzaketa-iturri eta tresnen dotazioa dibertsifikatuko da eta gaur egungo krisiaren testuinguruan beren ahalmen eta beharizanetarako egokia den laguntza-esparrua ezarriko da, berrikuntza teknologikoari eta ez teknologikoari nahiz aukeren sektore berrietarako dibertsifikazioari pizgarria emateko.

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren helburu estrategikoak hauek dira:

- 1. HELBURUA. Bideragarriak diren enpresa-proiektuen **berregituratze eta biziraupena** babestea; horretarako, egungo egoera gorabehera, lehiakortasun-testuinguru globalean bideragarriak izan daitezkeen enpresei lagundu behar diegu arazoak gainditzeko.
- 2. HELBURUA. Industria-sarearen eskura dauden **finantza iturri eta tresnen hornidura** sendotu, dibertsifikatu eta segmentatzea, enpresen finantzaketan laguntzeko mekanismoak garatuz. Enpresen beharizanetara ezin hobeto egokituko diren eta enpresen fase guztiak artatuko dituzten mekanismoak izango dira.
- 3. HELBURUA. **Egituraren dibertsifikazioa bultzatzea aukera-sektore berriei begira**, dauden gaitasunak eta teknologia konbergenteak uztartuta.
- 4. HELBURUA. Enpresa jarduera areagotzea, **ekintzailtza-ekimen berriak sortzeko** modalitate batzuk eta besteak kontuan hartuta, eta batez ere **barne-ekintzailtza** kontuan hartuta (Arreta-gunea industria-ekintzailtza da, eta hori bat dator EGLSko Ekintzailtza Berrikuntza eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza buru duen Ekintzailtza Babesteko Erakunde arteko Planarekin).
- 5. HELBURUA. **Industriak euskal ekonomian duen pisua mantendu eta indartzea**, ekoizpen-enpresen lehiakortasuna errazteko testuingurua sortuko delakoan. Hala, Euskadik ekoizpen-industrian garrantzi handia duen ekonomia eta aberastasun eta enplegu eragile izaten jarraituko du.
- 6. HELBURUA. **Energia-politikaren garapena bultzatzea**, palanka-efektua izan dezan Euskadiren hazkundean, lehiakortasunean eta iraunkortasunean (arreta-gunea industria-garapena eta lehiakortasuna da, bat dator 3E2020 Estrategiarekin, Energiaren Euskal Erakundea eta EGLS buru direla).
- 7. HELBURUA. **Giza kapitala** garatu eta babestea, enplegua sustatzeko eta enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzeko (arreta-gunea laguntza osoa eta pertsonen parte-hartzea da, bat dator 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programarekin, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila buru dela)

Helburu estrategikoekin batera beste helburu batzuk daude. Helburu horiek X. Legegintzaldiko Gobernu Programan agei dira eta eragin zuzena dute industria-enpresen lehiakortasunean, baina beste Gobernu-Plan Estrategiko batzuek garatzen eta zehazten dituzte. 2014-2016 aldiko Industrializazio Planak ere helburu horiek lortu nahi ditu eta bere arduradunekiko koordinazioa aurreikusten du, sustapen publikoko jardueren garapena osoa, sinergikoa eta eraginkorra izan dadin.

Helburu horiek, Industrializazio Planean bigarren mailan kokatzen direnak, hauek dira:


- **I+G+b-ren aldeko apustua mantentzea**, horretarako irizpideak bikaintasuna, espezializazioa eta enpresei emaitzak transferitzea direla (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria, EGLS eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila batera buru direla).
- Euskal enpresen garapen iraunkorrari pizgarria ematea. Horretarako, balio erantsi handiagoko eskaintzak bideratuko dira, **berrikuntza teknologikoaren eta ez teknologikoaren bitartez** (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria, EGLS eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila batera buru direla).
- Euskal ekonomia **kanpoalderantz gehiago irekitzea eta ekonomiak nazioartean duen erakargarritasuna handitzea** (Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategikoa, Lehendakartzako Kanpo Ekintzarako zuzendaritza buru dela)

2.4. Ardatz estrategikoak eta jarduketa-ildoak

Eusko Jaurlaritzak gure ekonomian eragiteko eta ezarritako helburuak lortzeko gaitasun mugatua duela jakinda ere, ez diegu uko egiten, eta, gure ekintzaren bidez, gizarte osoak helburu horiek lortzeko bidean azkarrago eta sendoago aurrera egiteko lagungarriak izango diren baldintzak ezartzeko eta portaerak eragiteko apustua egiten dugu.

Hori lortzeko, zenbait jarduketa-eremu estrategiko definitu ditugu, planteatutako helburuekin bat datozenak. Guztira, **7 helburu, 5 ardatz estrategiko eta identifikatutako 20 ekintza-ildo dira.**

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren helburuak, ardatzak eta ekintza-ildoak



2.4.1. ETEen finantzaketa eta berregituraketa

EAEko ekonomiak hazi egin behar du enplegua sortzeko, herri-kontuak orekatu behar ditu, eta ongizate-estatu iraunkortasunean garatu behar du. **Gure enpresa-ehunari lagundu behar diogu egoera ekonomikoak eragindako oztopoak gainditzin**, enpleguaren suntsipena geldiarazten, eta proiektu bideragarriak sendotzen.

Jaurilaritzak, batez ere egungo egoeran, enpresei lagundu nahi die, **enpresa bakoitzaren izaerari eta zikloei egokitutako finantziario- eta berregituraketa soluzioak** lortzen, gure enpresa bideragarrietako bat ere desagertu ez dadin, edo lehiakortasuna gal ez dezan, finantziario egokirik ez izateagatik. Egungo atzeraldiaren testuinguruan, finantziarioa giltzarriko lehiakortasun-faktorea da, aurreko urteetan ez bezala, eta gure inguruan enpresek, batez ere enpresa txiki eta ertainek, arazo handiak dituzte, bai jarduna finantzatzeko, bai hazkunde- eta inbertsio-planak egiteko, haien osasun ekonomikoa edonolako dela ere. Helburua da proiektu bideragarriek irauteko eta sendotzeko behar duten finantziarioa eskuratzeko modua izan dezatela.

Gure herrian lan-harremanen eremuan gatazka sakona gertatzen ari da, eta enpresen kudeaketari dagokionez gatazka horrek aintzat hartu ezin den larritasuna dauka. Elkarriketaren nariadura, hitzarmen kolektiboei buruzko adostasunik eza, etab. oso kaltegarriak dira gure enpresa-sarearen lehiakortasunerako. Horregatik, Eusko Jaurilaritzaren ustez hainbat mekanismo modu sakonagoan definitu behar da, enpresak **personak arreta-gunean dauzkaten erakundeak izan daitezten, etorkizuneko enpresa-proiektuen iraunkortasuna bermatzeko mekanismo gisa**. Langileek enpresan parte har dezatela bultzatuko duten inguruneak sortzeko arau- eta laguntza-esparrua diseinatu nahi dugu, partaidetzako sistema bakar bat aurretiaz juzgatu gabe.

Horretarako, Industria Sailburuordetzak eta SPRIk honako ildo eta jarduketa hauek bultzatuko ditugu:

a) **Araoak dituzten enpresa bideragarrien berregituratzea bultzatzeko ekintza koordinatua**

Bideratu (zailtasunetan dauden baina proiektu bideragarriak dituzten enpresetan baterako inbertsioak egiteko tresna) berreskuratzea eta bultzatzea

Enpresak berregituratzeko inbertsioak bultzatzea *Luzaro*-ren bidez (mailegu parte-hartzaileak), Ogasun eta Finantza Sailarekin koordinatuta.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Ogasun eta Finantza Sailarekin koordinatzea, enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetzeko eta lehiaketa-prozesuetan hartzekodun gisa jarduteko, hurrenez hurren, negozio-ikuspegia eta egokitutako konponbideak emateko.

b) **ETEen finantzaketan laguntzeko tresnak indartu eta zabaltzea**

Enpresa txiki eta ertainen laguntza finantzarioa emateko programa (AFI) eta berme tekniko eta finantzarioen beste programa batzuk (elkarren bermerako sozietateak) bultzatzea, Ekonomia eta Ogasun Sailarekin koordinatuta.

Gauzatu (enpresa txiki eta ertain berritzaile eta enplegu-sortzaileen inbertsioak finantzatzeko tresna) sinplifikatzea eta bultzatzea

Enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko Europako inbertsio-funtsak eskuratzeko eta baliatzea (Europako Inbertsio Bankuak aurreikusitako eta *Luzaro*-ren bitartez egituratutako funts berriak)

Kapital pribatuekiko lankidetzak, inbertsio-estrategia partekatuetan (hitzarmenak eta protokoloak *business angels* sareekin eta hazi-kapitalen eta garapen-kapitalen funts pribatuekin)

Lobby eta arautzeen egokitze proaktiboa, eta gaitasunaren eta hazkunderaren alorreko Europako programak

c) **Pertsonen enpresaren jabeagan duten parte-hartzea sustatzea**

Langileek enpresaren jabetzan parte hartzea bultzatzeko arrisku-kapitaleko funtsa sortzea (LANPAR funtsa). Innobideak-Pertsonak Estrategia

Langileek enpresaren jabetzan parte hartzeko aholkularitza-programa.

Enpresetan inbertsio pribatua bultzatzeko formula fiskalak esploratzea, Foru Aldundiekin batera.

Eta gainera, ETEak eta autonomoak ekonomiaren aldetik bultzatzeko beste jarduketa-ildo batzuk ere hartuko ditugu oinarri, enplegua eta giza kapitala arreta-guneak direla. Jarduketa-ildo horietako buru Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila izango da, 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programa dela medio:

- d) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatutako ekintza, industria-sektore eta jardueretatik datorren **giza kapitala artatu, orientatu, gaitu eta birkokatzeko**, 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan.

Industria-sektore eta jardueretatik datorren giza kapitala artatu, orientatu, gaitu eta birkokatzeko ekimen eta programen agerraldia, arreta berezia langabetuei eta kaltetuen dauden eskualdeei emanda, 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan.

- e) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Foru Aldundiekin koordinatutako ekintza, **autonomoentzako eta ETEentzako laguntza integralerako**, 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan.

Titularren erretiroagatik edo motibazio ezagatik zein proiektuaren errentagarritasun eskasagatik ixteko arriskuan dauden enpresen jarraipena bermatzeko eta errazteko programa berri bat diseinatzea eta martxan jartzea.

Autonomoentzat zerga-alorreko neurri pizgarriak eta fiskalitatean hobekuntzak bultzatzea, foru-aldundiekin lankidetzan.

2.4.2. Industria-proiektu estrategikoak bultzatzea

*Ekonomiaren susperraldia industriak eragingo badu, industria-proiektu berriak beharko ditugu, susperraldi horren eragile izango diren proiektuak. Horregatik, Foru Aldundiekin bat egiten dugu erakunde-ahalegin horretan, Euskadin dagoen enpresa-sarean arrastatze-eragina izango duten **industria-proiektu berriak bultzatzeko**. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak bere esku dauden tresna eta programak egokitu eta sendotuko ditu, proiektu horiei laguntzeko.*

*Horregatik, Euskadik bere erakargarritasuna indartu behar du, enplegua sortu eta jarduera-kateak sendotuko dituzten **enpresa-proiektuak bereganatzeko**, tokiko enpresa-proiektuen hazkundearen alde apustu egingo duen kapitala lortzeko, eta ezagutzaren aldeko apustua indartuko duen talentua erakartzeko.*

Horretarako, Industria Sailburuordetzak eta SPRIk honako ildo eta jarduketa hauek bultzatuko ditugu:

- a) **Eragiteko eta herrestan eramateko gaitasuna duten proiektuak eta herrialde-proiektuak** finantza aldetik bultzatzea

Berre estrategikoen programa berritzea (herrestan eramateko gaitasuna duten eskariak eta proiektuak)

EKARPENen eta SGECR funtsen (batez ere Ezten eta Basque AFZ berria) garapena, enpresa estrategikoetan/herri enpresetan aldi baterako parte hartzeko tresnak diren aldetik, erabaki-guneak iraunarazteko eta Euskadi Funts berria ezartzea, enpresa-ekimen berriak kapitalez hornitzeko, berariazko zerga-tratamenduekin

Palanka-efektua Socade sozietatean eta Euskal Finantza Erakundearen, inbertsio estrategiko iraunkorretarako.

Inpaktu handiko finantzaketan sektore-ekintzen etengabeko ebaluazioa, klusterrekin lankidetzan (adib.: Makinen RENOVE egitasmoa, ontzintzarentzako laguntza, elikagai industriarentzako laguntza, Ekodiseinu programentzako laguntza, diseinuaren industriarentzako laguntza, etab.)

Berre-funts sektorialak eratzeko ekimenentzako laguntza, klusterrekin lankidetzan

- b) **Klusterren politika sendotzea**, gure enpresa-sarearekiko lotura eta Jaurlaritzaren ekonomi sustapeneko jarduera biderkatzen duen tresna baita

Klusterren helburuen eguneratzea, Sailaren ikuspegitik, eta haien ebaluazioa, bilakaera-plan bat ezarrita. Dekretu arautzaile berriak.

Klusterren arteko lankidetzaren garapena, espezializazio adimendunaren estrategiarekin lerrotuta, ZTBES-ekin lankidetzan berrikuntza teknologikoa garatzeko.

Lankidetzaren mekanismoak antolatu industria-alorreko erreferentziako euskal klusterrekin, balio-kate osoan eragingo duten jarduerak abiarazteko, I+Gtik hasi eta merkaturaino, eta dimentsionatze, koordinazio eta bateratze estrategiak erabiliz.

Enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko eragile-papera indartzea, horretarako emaitza-kontua partekatzea dakarten lankidetzaren proiektu zehatzak sustatuz.

- c) **Ekonomia berdeko - offshore eta smart grid-en etorkizuneko esparruetan industria eta teknologia garapena** bultzatzea, Energiaren Euskal Erakundea dela medio (3E2020 – Energibasque)

Smart grids Bidelek ekimena (kontagailu adimendunak) osatzea.
"Herrialdeko merkataritza-eskaintza" bultzatzea Smart grids bidez
Euskadin automozioaren arloan elektrizitatea erabiltzeko estrategia garatzea: araudia, laguntzak, etab.
Energia undimotrizaren alorreko proiektu esperimentalak Euskadira erakartzea eta bultzatzea
Bimep eta beste proiektu batzuk abian jartzea eta egokitzea
Sakontasun handiko Offshore proiektu esperimental eolikoa garatzea: kontzeptu-diseinua, partzuergoa sortzea eta abian jartzea, euskal enpresek bultzatua.
Energibasquen definituta dauden teknologia- eta industria-garapeneko beste jarduketak batzuk: energiGUNE babestea, hidrokarburoen erreserbak arakatu eta ustiatzea

- d) **Barne-ekintzaitzaren aldeko apustu nabarmena, enplegua sendotu eta sortzeko gaitasun handia duelako**, Ekintzaitzeta Babesteko Erakunde arteko Planaren barruan.

Barne-ekintzaitzaren edo ekintzaitzeta korporatiboaren aldeko laguntza-programa espezifikoak abian jartzea (programa horrek integratu eta indartuko ditu abian dauden ekimenak, enpresa eragileen parte-hartzea duten ekintza berriak garatuko ditu, laguntza Enpresa eta berrikuntza-zentroetan ekintza horiek burutzeko, eta klusterretan ekintzak dinamizatzeke).
Ekintzaitzarako euskal sistemaren lidergoa eta koordinazioa, eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroyen arkitektura optimizatzea eta sendotzea bideratzea

Eta gainera industria-proiektu estrategikoak erakarri eta atxikitzeke beste jarduketak-ildo batzuk hartuko ditugu oinarri. EGLSko Nazioartekotze Zuzendaritza eta SPRI buru dituzten ildoak dira (Invest in the Basque Country), eta Enpresa-nazioartekotzeko Planaren garapenaren bitartez, Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategikoaren barruan:

- e) Kanpoko **inbertsio estrategikoak erakartzeko eta atxikitzeke** estrategia garatzea.

Erakarpen-ekintza proaktibo eta fokalizatua espezializazio adimendunaren strategiari lotutako lehentasunezko eremuetan.
Euskadin ezarritako multinazionalen arreta emateko "after care" tresnak sendotzea.
Euskadin ezarritako talde multinazionalen baterako aukera globalak bilatzea.

2.4.3. Industria aurreratua sendotzea

Gure enpresen lehiakortasuna sendotu behar dugu. Gure enpresek produktibitate-gapa itxi behar dute, herrialde aitzindarietako enpresak erreferentzia gisa hartuta, **balioetan lehiatu nahi badugu eta ez kostuetan**. Enpresei lagundu behar diegu lehiakortasun-palankak garatzen, nazioarteko lehiaren ingurunean.

Ingurune horren eraginez, gure enpresek aurrera egin behar dute, eta industria-lehiakortasuneko beste fase batera heldu, **manufaktura aurreratuko** fase batera. Fase horretara heltzeko, gure industriaren lehiakortasun-ahalmena hobetu beharko da, eta ahalmen hori hobetu ahal izateko hau guztia egin beharko da: bezeroari balio erantsi handiagoa eskaini; produktu berriak aurreratu eta garatu; diseinatzean eta fabrikatzean prozesu berriak erabili; jardura tradizionalan teknologia konbergenteak txertatu; industrietan eratzen diren bezero-talde berriei egokitutako negozio-eredu berriak sortu; apustu etengabea egin berrikuntza teknologikoaren zein ez teknologikoaren alde eta ahalmen berriak txertatzearen alde; industriaren eta ekonomiaren egoera berriei egokitutako ezagutzaren eragileekin lankidetzan aritu, etab.

Beste alde batetik, beste urrats bat eman nahi dugu **klusterizazio-etapa** berri bat lortzeko bidean; hain zuzen, herrialdeko ekonomia-jardura osatzen duten eta elkarren artean lotura duten balio-kateen multzoaren klusterizazioa,

eta beraz, industrien balio-kateak osotasunean kontuan hartzea eta sektore-ikuspegi klasikoa gainditzea. Laburbilduz, jardueren klusterizazioa oinarri hartzean datza erronka, klusterizazio hori mekanismo egokia baita balio handiko proiektu eta proposamen nabarmenak sortzeko, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz sustatzeko eta jarduera ekonomikoaren kateak osorik sendotzeko (ikerkuntzatik hasita eta merkaturaino), ahaztu gabe kate horren begien arteko harremanak edo kate diferenteen artekoak.

Kontua ez da bere horretan industriaren aldeko apustua egitea, baizik eta industria-lehiakortasuneko ordena berri horretan beren bilakaera jarraituko duten enpresen garapenarekin lotzea, gure herriko **industri kultura** balioetsiz Kultura horretan, hain zuzen ere, pertsonak dira enpresen funtsezko aktiboa. Horregatik, lehiakortasuna hobetearren, **langileek gehiago parte hartzeko** prozesurik abiarazten badute, lagundu egin nahi diegu. Helburua izango da pertsonak hazten laguntzea, lanbidean eta pertsona modura garatzeko moduak sortzea. Epe luzearako horrelako proiektuak sortzen laguntzeko asmoa daukagu.

Horretarako, Industria Sailburuordetzak eta SPRIK honako ildo eta jarduketa hauek bultzatuko ditugu:

a) **Manufaktura aurreratuko zeharkako estrategia** abian jartzea

Manufaktura aurreratuan inbertitzeko proiektuak finantzatzeko laguntza-tresnak egokitzea.
Manufaktura aurreratuko balio erantsi handiko azpiegitura espezifikoak bultzatzea (baliozkotzea, eskalatzeko industrialak, fabrikazio-teknikak eta abar).
Manufaktura alorreko klusterrekin lankidetzan, berrikuntza teknologikoaren eta ez-teknologikoaren alorreko ekimen garrantzitsuen identifikazioan.
Produktzio-eraren bereziki proiektuak bultzatzea, industria-lurzoruan dugun esperientzia eta finantza-errentamenduen formulen diseinua baliatuta.
Proiektu industrial estrategikoak erakartzeko plana (balio-kateak osatuko dituzten maila teknologiko handiko manufaktura-proiektuak) <i>Invest in Euskadi</i> -rekin koordinatuta, klusterrekin lankidetzan
Lidergo eta koordinazio Manufaktura Aurreratuaren Estrategian, Teknologia Elektronikoak, Informatikoak eta Komunikazioak eta lotutako zerbitzuak kontuan hartuta

b) **Langileek enpresan gehiago parte har dezatela** sustatzea

Enpresan langileen parte-hartzea sustatzeko programa (jabetza- antolakuntza-eredu berriak, tresnak...)
Langileek enpresan parte har dezatela bultzatuko duten inguruneak sortzeko laguntza-esparrua diseinatzea. Innobideak-Pertsonak estrategia.
Antolaketa- eta kudeaketa-eredu berriei buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza

c) **Enpresa-azpiegituren sustapena** berrindartze ekonomikoaren zerbitzuan

Lurzoruen eta pabiloien salmenta sustatzea.
Parke teknologikoen sarea eta Sprilur dinamizatzeko eta babesteko jarduerak sendotzea
Industrialdeen kudeaketa optimizatzea, eta Sailaren nodo gisa duten rola bultzatzea
Lurzoruen funts estrategikoa egikaritzea: Hasierako inbertsioak osatzea eta proiektu berriak kudeatzea
Jaurlaritzaren inbertsio-plan estrategikoarekin koordinatzea, eta EAEko industrian duen trakzio-eragina maximizatzea

Eta gainera, gure enpresa-sarea lehiakortasun aldetik sendotzeko beste jarduketa-ildo kritiko batzuk ere hartuko ditugu oinarri. Jarduketa-ildo horiek EGLSren beste funtzio-arlo batzuk izango dituzte buru, bakoitzak legegintzaldiko plan estrategiko zehatz batzuetan:

d) **Gure enpresa-sarearen esportaziorako eta apurkako nazioartekotzekorako** laguntza sendotzea, lehiakortasuna hobetzen duen elementu hori modu iraunkorrean hazteko ezinbestekoa delako, Enpresa

Nazioartekotzeko Planaren esparruan eta Euskal Nazioartekotze Partzuergoa eratzea dela bide (Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategikoa)

Kanpo jarduerari laguntzeko sistema sendotzeko ekintzak: Euskal Nazioartekotze Partzuergoa
Laguntza berezia, enpresak nazioarteko merkatuetan sartu ahal izan daitezen (esportatzaile berriak, esportatzaileak, kokaleku anitzekoak)
Sektore eta klusterrei laguntzeko ekintzak, euskal ondasun eta zerbitzuek nazioartean duten posizioa indartzeko: Elkartzen eta kanpoko sustapena (enpresa-bidaiak)
Giza kapitala dinamizatze ekintzak, nazioarteko merkatuetan sartzeko: nazioartekotze bekak, Global training, profesionalak kontratatzea
<i>Inbertsio estrategikoak atzitu eta sendotzeko ekintzak (Industria-proiektu estrategikoen ardatza - Erakarpene/Atxikipena ildoak)</i>
Nazioarteko eta alde anitzeko finantzaketa eta lankidetzak ekintzak: informazioa, Finantzaketa aldeanitzak eskuratzea (Basque Country expertise), nazioartekotzeko finantzaketa-tresnak egokitzea, (abalak)

- e) **Espezializazio adimendunerako laguntza ematea eta ekonomia-sarea dibertsifikatzea, aukeren sektore berrietara heltzeko**, dauden ahalmenak teknologia konbergente berriekin konbinatuz, Espezializazio adimendunaren strategiaren (RIS3 berria) eguneraketaren barruan. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza da estrategia horren buru.

Espezializazio adimendunaren estrategia (RIS3 berria) prestatzea, zenbait eremutako jarduerak orienta ditzan (eta Sailaren programetan apustu egiteko irizpide komunak adierazita)
Baliozkotzea (<i>proof of concept</i>) eta eskalatzeko industria bultzatzeko programa berri bat, izaera horizontala duena, baina lehentasunez aplikatzen dena bio, nano, energia eta manufaktura aurreratuaren estrategietan. Horretan Industria Sailburuordetzak parte hartuko du proiektu pilotuak garatzen.
Teknologi eta industri estrategien agerraldia: Nanobasque, Biobasque, Energibasque (EEEekin lankidetzan), baita manufaktura aurreratuaren agerraldia ere (manufaktura aurreratuaren agentzia berria diseinatzen ari da)

- f) Euskal enpresen garapen iraunkorrerako pizgarria, **berrikuntza teknologikoko eta ez-teknologikoko** estrategien bidez, balio erantsi handiagoko eskaintzak errazago sortzeko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza buru duen Zientzia eta Teknologia Plan berriaren esparruan.

Manufaktura Aurreratuarekin lotutako ekintzak, teknologiaren esparruan: manufaktura aurreratuaren I+G programak txertatzea, konbergentzia teknologikoko ekimenetarako berariazko laguntza, prestakuntza praktikoaren sustapena
Manufaktura Aurreratuarekin lotutako ekintzak, berrikuntza ez-teknologikokoaren esparruan: diseinu (eta Ekodiseinu) programa, industria-enpresetako negozio-eredu berriak, industriari lotutako zerbitzuetarako laguntza teknologietan, manufaktura aurreratuako sistemetan, etab.
Enpresen lehiakortasuna sendotzeko ekintzak, Euskadiko 2015 Agenda Digitalaren esparruan: Teknologia Elektronikoa, Informatikoa eta Komunikaziokoaren arloko tresna eta programak enpresentzat.
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Saretik (ZTBES) Industriara teknologia hedatzeko programak indartzea.

2.4.4. Lehiakortasuna ezaugarri duen industria- eta energia-inguruabarra sortzea

Finantzen eta lan-arloen mugez gain, gure industriak beste eragozpen batzuk dauzka: **nazioarteko lehiakideek baino kostu handiagoak dauzka energiaren, zergen edo gizarte segurantzaren arloetan**. Gure erantzukizuna enpresei eragozpen horiek gainditzeko laguntzean datza; horretarako lehiakortasun inguruabarrak sortu behar ditugu, enpresen portaerak benetan lehiakorrik izan daitezkeen.

Bereziki azpimarratu nahi dugu hau: gure asmoa da **politika energetikoaren** garapenak energiari lotutako EAEko enpresa-ehuna bultzatzea eta sistema energetiko lehiakor eta iraunkorra sendotzeko bidean aurrera egin dezala.

Horretarako, Industria Sailburuordetzak, SPRIk eta Energiaren Euskal Erakundeak honako ildo eta jarduketa hauek bultzatuko ditugu:

- a) Ministroen Kontseiluak onetsitako **argindarraren arloko arauketa berria dela-eta** euskal industria-sektorean jasaten ari diren **ondorio negatiboari aurre egiteko** neurrien agerraldia, Euskal Energiaren Erakundearekin konpartitua

Enpresentzako laguntza teknikoko eta aholkularitzako sistema bat ezartzea, klusterren bitartekotzaren bidez
Erreformaren ondoriorik txarrenak jasaten dituzten sektoreentzako arintze-neurriak ezartzea
Egokitzeko epeak malgutzea eta trantsizio-epeak ezartzea, enpresek beren ekoizpen-sistemak egoera berriaren eskakizunetara egokitzeko modua izan dezaten.
6.1 tarifari esleitutako gune geografikoan dauden enpresentzako laguntza, tentsio-hartune ekonomiko bat lortu ahal izan dezaten.
Industria arloko baterako sorkuntzaren segurtasuna indartzea ordainsarien aldetik
Etengarrtasun sistema lehiakorragoa eta industria osora hedatzeko joera duena ezartzea
Kontrol Erakunde Baimendu (KEB) bat sortzea

- b) **Energia-politikaren** agerraldia egitea eta **energia-egitura indartzea** 3E2020ri jarraituz, Energiaren Euskal Erakundeak bitarte dela

3E2020 plana eguneratzea, Euskadiko errealitate energetikoaren eta lehiakortasun-testuinguruaren arabera
3E2020 - Gas naturalaren hornidura sistema sendotzea eta energia-eskaintza hobetzea: gasaren hornidura-sistema sendotzea; hidrokarburoen errezerbak arakatu eta ustiatzea: Bilbao Gas Hub-i laguntza ematea; basoetako biomasaren proiektu pilotuak; argindar-sistemaren kalitatea eta horniduraren segurtasuna hobetzea
3E2020 - Energiaren eskaria moldatzea, aurrezpena eta energia-eraginkortasuna ahalbidetzeko: aurrezpenerako eta energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien laguntzarako ekintza segmentatuen agerraldia; eraikin publikoetako aurrezpenerako eta energia-eraginkortasunerako plana

- c) **Industria eremuetako izapide administratiboei** jarraitzea eta **izapide horiek bizkortzea indartzea**

Industriari buruzko legearen garapena industria-segurtasunari dagozkion alderdietan (enpresa instalatzaileak, txartel edo agiriak, profesionalen prestakuntza, etab....).
Industria-segurtasuneko arau-betetzearen kontrola.
Industri segurtasunaren teletramitaziorako aplikazioak hobetzea
Meatzaritza-politika gaur egungo egoerara moldatzeko neurriak: Berme sistemen lege-erreformarako ministerio-batzordea; Administrazioen arteko koordinazio-esparrua; Meatzaritza mahaia; ingurumen-ukipenen jarraipenerako eredu berria; arau-garapena
Meatzaritza-industriari laguntzeko neurriak: berrikuntza eta zaharberritze jardueretarako laguntza

2.4.5. Pertsonen aldeko apustua

Pertsonak dira enpresen funtsezko aktiboa. Industrializazio Planak (lehenago azaldu diren 1., 2. eta 3. ardatzetan) hainbat lan-ildo biltzen ditu, giza kapitalaren gaitasunak hobetu nahiz dinamizatzeko nahiz erakundeetan langileen parte-hartzea indartzeko, parte-hartze hori lehiakortasuna hobetzeko mekanismo dela ulertzen baita; horretarako, epe luzeko proiektu partekatuak sortuko dira, pertsonen hazten laguntzeko eta garapen profesional eta pertsonalerako espazioak sortzeko.

Horrez gain, enplegua eta giza kapitala ardatz dituzten beste ildo batzuetan oinarrituko gara. Jarduketa-ildo horiek EGLSren beste funtzio-arlo batzuk izango dituzte buru, bakoitzak legegintzaldiko plan estrategiko zehatz batzuetan (adibidez giza kapitala dinamizatzeko neurriak, Enpresa Nazioartekotzeko Plan Estrategikoan biltzen direnak, nazioarteko merkatuetan sartzeko helburu dela); edo ETEak eta autonomoak ekonomiaren aldetik suspertzeko jarduketa-ildoak, enplegua eta giza kapitala arreta-guneak direla. Jarduketa-ildo horietako buru Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila izango da, 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programa dela medio.

2014-2016 aldiko Industrializazio Planean Pertsonekin zerikusia duten ildoak (1., 2. eta 3. ardatzak)

Eusko Jaurlaritza eta SPRI buru dituzten ildoak

Eusko Jaurlaritzako beste Zuzendaritza eta Sail batzuk buru dituzten ildoak

2.4.1. ETEen finantzaketa eta berregituraketa	
<p>c) Pertsonen enpresaren jabegoan duten parte-hartzea sustatzea</p> <ol style="list-style-type: none"> Langileek enpresaren jabetzan parte hartzea bultzatzeko arrisku-kapitaleko funtsa sortzea (LANPAR funtsa). Langileek enpresaren jabetzan parte hartzeko aholkularitza-programa. Enpresetan inbertsio pribatua bultzatzeko formula fiskalak esploratzea, Foru Aldundiekin batera. 	<p>d) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatutako ekintza, industria-sektore eta jardueretatik datorren giza kapitala artatu, orientatu, gaitu eta birkokatzeke, 2013-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan.</p> <ol style="list-style-type: none"> Industria-sektore eta jardueretatik datorren giza kapitala artatu, orientatu, gaitu eta birkokatzeke ekimen eta programen agerrialdia, arreta berezia langabetei eta kaltetuen dauden eskualdeei emanda, 2013-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan. <p>e) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Foru Aldundiekin koordinatutako ekintza, autonomoentzako eta ETEentzako laguntza integralerako, 2013-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan.</p> <ol style="list-style-type: none"> Titularren erretiroagatik edo motibazio ezagatik zein proiektuaren errentagarritasun eskasagatik itxeko arriskuan dauden enpresen jarraipena bermatzeko eta errazteko programa berri bat diseinatzea eta martxan jartzea. Autonomoentzat zerga-alorreko neurri pizgarriak eta fiskalitatean hobekuntzak bultzatzea, foru-aldundiekin lankidetzan.
2.4.2. Industria-proiektu estrategikoak bultzatzea	
<p>d) Enpresetan inbertsio pribatua bultzatzeko formula fiskalak esploratzea, Foru Aldundiekin batera. Barne-ekintzailtzearen aldeko apustu nabarmena, enplegua sendotu eta sortzeko gaitasun handia duelako, Ekintzailtza Babesteko Erakunde arteko 2013-2016 aldiko Planaren barruan.</p> <ol style="list-style-type: none"> Barne-ekintzailtzearen edo ekintzailtza korporatiboaren aldeko laguntza-programa espezifiko abian jartzea (programa horrek integratu eta indartuko ditu abian dauden ekimenak, enpresa eragileen parte-hartzea duten ekintza berriak garatuko ditu, laguntza Enpresa eta berrikuntza-zentroetan ekintza horiek burutzeko, eta klusterretan ekintzak dinamizatzeko). 	
2.4.3. Industria aurreratua sendotzea	
<p>b) Langileek enpresan gehiago parte har dezatela sustatzea</p> <ol style="list-style-type: none"> Enpresan langileen parte-hartzea sustatzeko programa (jabetza-antolakuntza-eredu berriak, tresnak...) Langileek enpresan parte har dezatela bultzatzeko duten inguruneak sortzeko laguntza-esparrua diseinatzea Antolaketa- eta zuzendaritza-eredu berriei buruzko sensibilizazioa eta prestakuntza 	<p>d) Gure enpresa-sarearen espertiziorako eta apurkako nazioartekotzekorako laguntza sendotzea, lehiakortasuna hobetzen duen elementu hori modu iraunkorrean hazteko ezinbestekoa delako, Enpresa Nazioartekotzeko Planaren esparruan eta Euskal Nazioartekotze Partzuergoaren erantzun bide (Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategikoa)</p> <ol style="list-style-type: none"> Giza kapitala dinamizatzeko ekintzak, nazioarteko merkatuetan sartzeko: nazioartekotze bekak, Global training, profesionalak kontratatzea <p>f) Euskal enpresen garapen iraunkorrerako pizgarria, berrikuntza teknologikoko eta ez-teknologikoko estrategien bidez, balio erantsi handiagoko eskaintzak errazteko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza buru duen Zientzia eta Teknologia Plan berriaren esparruan.</p> <ol style="list-style-type: none"> Manufaktura Aurreratuarekin lotutako ekintzak, teknologien esparruan: manufaktura aurreratuan I+G programak txertatzea, konbergentzia teknologikoko ekimenetarako berariazko laguntza, prestakuntza praktikoaren sustapena

2.5. Ekonomia- eta aurrekontu-alderdiak

2014-2016 aldiko Industrializazio Planak aurrekontuetan duen eragina zuzenean lotuta dago Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren eta sail horren ekimenetan inplikazioa duten sozietate publikoen (SPRI, EEE, Sprilur, Teknologi Parkeak, Arrisku-kapitaleko Sozietatea eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroak) aurrekontuekin.

Zehazki, **Administrazio Orokorren eta lotuta dauden erakundeen 2014ko aurrekontua, Planarekin lotura zuzena duena, 187 milioi €koa da.** Kopuru horretan sartzen dira EGLSko Industria Sailburuordetzak kudeatzen duen industriarentzako laguntzako aurrekontua (barnean dira enpresa-nazioartekotzeko programa, Basque Country Estrategian ere kontuan hartzen dena), EEEK bere ekonomi eta finantza jarduerekin sorrazten dituen baliabide ekonomikoak, eta euskal industriari laguntza helburu duten EGLSko beste programa batzuen aurrekontu-partidak.

Onetsitako aurrekontuari esker, Industria Sailburuordetzak, SPRI Taldeak eta EEEK honako tresna eta laguntza hauen agerraldia egin ahal dute 2014an:

- **1. ARDATZA. ETEak:** Bideratu, Finantzen Euskal Erakundearentzako zuzkidura, enpresa-finantzaketako proiektuetarako, elkarren bermerako sozietateen eta finantza-erakundeen abal teknikoak eta finantzarioak, Luzaro, enpresentzako kredituak, Inbertsioa Finantzatzeko Babesa, Gauzatu
- **2. ARDATZA. Industria-proiektu estrategikoak:** Makinen RENOVE egitasmoa, Finantzen Euskal Erakundearentzako zuzkidura, enpresa-finantzaketako proiektuetarako, abal estrategikoak, ontzigitza sektorearentzako abalak, inbertsio-fondoan zuzkidura (Ezten, Basque FCR, Lanpar eta Ekarpn), Ekintzailtza Jardueretarako Laguntzak, Klusterizazio Politikak, Ekonomia Berdearen arloko proiektu estrategikoak bultzatzea
- **3. ARDATZA. Industria aurreratua:** Pertsonen enpresan parte-hartzeko programa, Industria aurreratuko proiektuetarako laguntza, Azpiegitura aurreratuetako inbertsioa, Enpresa nazioartekotzeko politikak, IKTak enpresa-sarean bultzatzeko politikak
- **4. ARDATZA. Lehiakortasuna ezaugarri duen industria- eta energia-inguruabarra:** Energiaren hornidurarako eta eraginkortasunerako jarduketak, Administrazioaren hobekuntza eta eraginkortasunerako jarduketak

Administrazio Orokorren 2014ko aurrekontuaren barruko tresna eta jarduketan osagarriak **industriari laguntzeko aurrekontuz kanpoko baliabideak dira, horien zenbatekoa 1.275 milioi € dela.** Baliabide horiek EGLSko bultzatzen, partaidetzen edota kudeatzen ditu (eta aurrekontu-ekarpenetan oinarritzen dira, adibidez Finantzen Euskal Erakundearentzako zuzkidura):

- ETEen zirkulazalea finantzatzeko hitzarmena elkarren bermerako sozietateekin. Zuzkidura: 600 milioi €
- ETEak finantzatzeko hitzarmena finantza-erakundeekin. Zuzkidura: 400 milioi €
- Luzaro partaidetza-kredituak eta Socade bidezko maileguak, 160 milioi € daude erabilgarri
- ETE bultzatzaileetarako abal estrategikoen programa, 100 milioi €-ko zuzkidurarekin
- Bermeen Ondare Funtsa ontzigitzaren sektorerako, Eusko Jaurlaritzak 14,6 milioi €-ko ekarpna egingo du
- Lanpar fondoa, 2013an zuzkitutako 2 milioi € daude erabilgarri

Industrializazio Planaren osagarriak dira, halaber, beste Gobernu-Plan Estrategiko batzuetan honekin guztiarekin lotuta aurreikusi diren jarduketak (batik bat Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, Basque Country Estrategia, 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programa) eta EGLSren beraren laguntza, sailen egitura eta mendeko beste erakunde batzuk direla medio (eta euskarria ematen duten baliabideak eta aurrekontuak ere kontuan hartu behar dira).

Industrializazio Planaren 2014ko aurrekontuaren xehetasuna, ardatzen arabera

	ETEak	Industria-proiektu estrategikoak	Industria aurreratua	Lehiakortasuna ezaugarri duen industria- eta energia-inguruabarra	2014KO AURREKONTUA GUZTIRA
EGLSren aurrekontu-zuzkidura	37.410 € milakotan	75.598 € milakotan	48.471 € milakotan	26.982 € milakotan	187.460 € milakotan
+ Aurrekontuetatik kanpoko baliabideak	+1.162.000 € milakotan	+114.600 € milakotan			+1.276.600 € milakotan

Industrializazio Planaren aurrekontua soila da, mugatua, aurrekontu-egonkortasunaren esparru berriarengatik eta zerga arloko diru sarreraren susperraldi motelaren aurreikuspenengatik. Etorkizunean inbertsio-lerro beraren alde egingo da. Hipotesi horiek kontuan hartuta, Plana 2014-2016 aldiran, hau da, **X. legegintzaldi osoan aplikatuta, 575 milioi euroko** aurrekontu zuzena emango luke.

Horrez gain, Planak beste baliabide batzuk ere jaso ahal izango lituzke, honako inguruabarretako bat benetan gertatzen bada:

- EAEko diruzaintzak eduki ahal dituen aurrekontu-sarreraren bilakaera. Horien bidez, Planak beste baliabide batzuk jaso ahal izango lituzke, industria-lehiakortasunean eragin handiagoa eduki ahal izateko, aurreikusitako ekimeneren bidez edo ekintza berrien bidez.
- Beste alde batetik, Industrializazio Planaren jarduketa-ildoak beste partida batzuekin osatu ahal izango dira. Partida horiek Estatuko Gobernuak Autonomia Erkidegoen esku jarri ahal ditu Europako funtsen bitartez, industriaren garapenari pizgarria emateko.

3. III. multzoa: Planaren gobernantza

3.1. Plana kudeatu eta koordinatzeko eredu

3.1.1. Planaren burutza


2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren **bultzatzaile eta burua Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila** da (EGLS). **Kudeatzaile eta koordinatzaileak**, berriz, **Industria Sailburuordetza, SPRI** (bere mendeko sozietateak, Sprilur, Teknologia Parkeak, Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketarako Sozietatea) **eta Energiaren Euskal Erakundea**. Sailburuordetza hori, SPRI eta EEE, era berean, Planean aurreikusitako jarduketa gehienak **egikaritzeaz** arduratzen dira.

EGLSren lidergo horren funtsezko helburuak hauek izango dira: Planari lotutako administrazio-jarduerarako jarraibideak ezartzea eta Plana beste estrategia, plan, programa eta ekintza propio batzuekin nahiz beste administrazio batzuenekin uztartzeko ingurune egokia sorraraztea.

EGLSrekin batera, **Ogasun eta Finantza Sailak** ere zeregin garrantzitsua dauka, Plana finantzatzeko funts eta tresnen (elkarren bermerako funtsei lotutako abalen ildoak, Luzaro-rekin lotutako beste kreditu-tresna batzuk, Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketa, etab.) agerraldiaren azken arduraduna eta egikaritzalea den aldetik.

Finantza-laguntzako eta kapitaleko neurriak

2013an birdefinitutako finantzaketa-bideak



3.1.2. Sailen arteko harremana eta koordinazioa

EGLSren Industria Sailburuordetzari, SPRIRi, EEERi eta Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion jardueraz gain, Industria Plana bere jarduketa-ildoetan Eusko Jaurlaritzako beste funtzio-arlo batzuetako plan eta ekimen batzuekin lotzen da, bai EGLSren bai beste Sail batzuen plan eta ekimenekin, industria-arloarekin lotuta beti eta arlo horretan eragina izateko.

Funtzio-arlo horiekiko harremana eta koordinazioa **Industrializazio Planaren Sail arteko Batzordearen** bitartez egituratuko dira

- Batzorde sortu berri hori izango da Industrializazio Planarekin lotutako gainerako estrategia, plan, programa eta ekintzekiko koordinazioaz arduratzen den erakunde gorena. Horrez gain, Industrializazio Planaren ekintza ildoak noraino gauzatu diren jakiteko jarraipen eta ebaluazioa urtero egiteaz arduratuko da.
- Batzorde horren burua EGLS izango da, eta Planean inplikazioa duten Sailburuordetza eta Zuzendaritza batzuen eta besteen ordezkariak ere egongo dira (Industria, Energia eta Meategiak eta Industria-administrazioa, Teknologia eta I+G, Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartea, Nazioartekotzea, Kalitatea eta Elikagaien Industriak).

- Gainera, Lehendakaritzak, Ogasun eta Finantza Sailak eta Eusko Jaurlaritzako gainerako Sail eta sozietate publikoek ere parte hartuko dute, baldin eta beren jarduerak industria-lehiakortasunean eragina badu. Hala ageri da Plan honen jarduketa-ildoetan, eta halaber, hurrengo orriko taulan zehazten da.
- Batzordea sei hilean behin bilduko da, funtsean industria-lehiakortasunarekin lotuta dauden Sail batzuen eta besteen ekintzen egikaritzapena koordinatzeko. Era berean, EGLSko edo SPRI/EEEEKo ordezkari batek Industrializazio Planarekin lotutako gainerako planak koordinatzeko mekanismoen bileretan parte hartuko du.
- Batzorde horretan, elementu teknikoa oso garrantzitsua izango da. Izan ere, Idazkaritza Tekniko bat eratuko da laguntza emateko Industrializazio Planaren jarraipen eta koordinazio lanetan eta noraino gauzatu den ebaluatzeko zereginean.

Gainera, EGLSko beste zuzendaritzekiko harremana eta koordinazioa (Teknologia Zuzendaritza, Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza, Nazioartekotze Zuzendaritza, eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza) **EGLSren 2013-2016 Jarduera Planaren** koordinazio-mekanismoekin sendotuko da. Hain zuzen ere, Sailak mekanismo horien bidez bultzatzen ditu barneko informazioa eta lankidetzak.

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren jarduketa-ildo batzuen edukia garatzen duten plan eta estrategietan sail arteko koordinazio-mekanismoak definitzen dira. Mekanismo horietan plan horri lotutako koordinatzaile eta teknikariek (Industria Sailburuordetza, SPRI eta EVE) parte hartuko dute. Hona hemen koordinazio-mekanismo horiek:

2014-2016 aldiko Industrializazio Planarekin lotutako Estrategia eta Planetan aurreikusten diren koordinazio-mekanismoak

Ardatz estrategikoak	2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren ekintza-ildoak	Garatzeko direneko planak	Burua	Sail arteko koordinaziorako mekanismoak
1. ARDATZA ETEak	Giza kapitala	Enplegua Sustatzeko Programa 2014-2016	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia
	Babes integrala			
2. ARDATZA Industria-proiektu estrategikoak	Erakarpena/Atxikipena	Enpresa-nazioartekotzeko Plana 2014-2016 (2013-2016 aldiko Nazioarteratzeko Plan Estrategikoaren zatia)	EGLS, Nazioartekotzeko Zuzendaritza	Nazioartekotzeko Euskal Kontseilua Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen bilkura
3. ARDATZA Industria aurreratua	Nazioartekotzea	Enpresa-nazioartekotzeko Plana 2014-2016 (2013-2016 aldiko Nazioarteratzeko Plan Estrategikoaren zatia)	EGLS, Nazioartekotzeko Zuzendaritza	Nazioartekotzeko Euskal Kontseilua Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen bilkura
	Espezializazio adimenduna	2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana Espezializazio adimendunaren estrategia (RIS 3)	EGLS, Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin konpartitua)	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Batzordea Espezializazio adimendunaren estrategia koordinatzeko mekanismoak definitu gabe daude (RIS 3)
	Berrikuntza (Tech / ez Tech)	2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana	EGLS, Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Batzordea

3.1.3. Erakunde arteko koordinazioa

Sail arteko koordinaziotik harago, 2014-2016 aldiko Industrializazio Planerako beharrezkoa da erakundeen inplikazio ahalik eta handiena, baita erakundeen arteko koordinaziorik handiena ere, gainerako erakundeekin –batez ere Foru Aldundiekin– hainbat gauza ituntzea eskatzen duelako. Erakunde-erantzukizunak bultzaturik sinergiak lortu nahi dira erakundeen maila batzuetan eta besteetan ekimenak ugariak diren arlo batean.

Koordinazioa **Ekonomi Sustapeneko Euskal Kontseiluarekin ezarriko da etengabe**. EGLS, planaren arduradunik handiena den aldetik, Ekonomi Sustapeneko Euskal Kontseiluarekin koordinazio etengabea ezarriko du, Kontseilu hori baita industria-jardueraren arloan Lurralde Historikoekin koordinatzeko erakunde gorena, enpresa-jarduerari laguntzeko programen berrikuspen eta egokitzapen etengabea oinarrituta (lehenago azaldu diren ardatz estrategikoetan azaldu dira programa horiek).

3.1.4. Ekonomia- eta gizarte-eragile garrantzitsuen partaidetza

Planaren ezaugarri nagusietako bat, bere izaera irekia da. Euskadin industria-esparruan garrantzitsuak diren ekonomi eta gizarte eragileekin izandako elkarriketa eta bileretan Eusko Jaurlaritzak adierazi du bere gogoia dela Industrializazio Plana aberasteko beharrezkotzat jotzen diren berariazko ekarpen eta akordioak txertatzea planaren garapen eta ezarpenak irauten duen bitartean.

Ilido beretik, eta epe luzea gogoan hartuta, Eusko Jaurlaritzak baloratuko du **industria-lehiakortasuneko plataforma iraunkor** bultzatu ahal ote den, gure industriari eta gure ekonomiari buruzko epe luzeko ikuspegi bat izateko.

Eragile anitzeko gogoetarako foroa izango litzateke. Foro horrek, euskal ekonomiak orain arte egin duen ibilbidearen eta gaur egun duen egoeraren diagnostiko sendo eta patxadatsua oinarri hartuta, epe luzea hartuko du arreta-gune gisa, eta Euskadiren bizibidea etorkizunean zein izango den galdetuko du aldian-aldian. Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna krisia gainditzea da. Horregatik, bere eginbeharra gure lehiakortasunaren gakoak epe luzera aurreikustea da. Hala, herriaren plangintza estrategikoan Euskadiren etorkizuneko ongizate eta iraunkortasuna bermatzea helburu duten apustuak txertatu ahal izango dira.

Plataforma horrek EGLS izango du buru, eta Euskadin industria-esparruan garrantzitsuak diren ekonomi eta gizarte eragileen partaidetza izango du (erakunde publikoak, enpresa-elkarteak, sindikatu-elkarteak eta ekoizpen-sektoreetako elkarteak, eragile zientifiko eta teknologikoak, gizarte-eragileak eta herritarrek ordezkariak, etab.). Plataformak urtero egingo lituzke bilerak. Hala, industriak Euskadin etorkizunean izango duen zereginari buruzko gogoeta, azterketa eta prospekzioko dinamika egonkorra sustatuko luke eta Industrializazio Planean txertatzeko neurri eta ekintza berrien proposamenak sorraraziko lituzke.


3.2. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

3.2.1. Jarraipen-dinamika

Industrializazio Planaren barruan, xumea eta praktikoa izatea irizpide hartuta, urtero aplikatzeko sistematika diseinatu da, betiere plangintza, egikaritzea, ebaluazioa, doitzea eta kontu-emate publikoa barnean hartuta. Dinamika hori prozesu gisa taxutzen da, eta lehenago azaldu den bezala, fase hauetan garatuko da:

- Ebaluazioa, doitzea eta emaitzen aurkezpena. Urtearen bigarren hiruhilekoan, gero azalduko dugun aginte-koadroa oinarri hartuta, ebaluazio-lana egingo da, amaitu den urtean Planaren barruan abian jarritako ekintzen betetze-maila eta ahalegina, jarduera eta inpaktua neurtzeko. EGLSk Idazkaritza Teknikoaren laguntzaz egingo duen ebaluazio horren emaitzak azaldu diren erakunde eta foroen urteroko ebaluazio-bileretan aurkeztuko dira:
 1. **Industrializazio Planaren Erakunde Arteko Batzordea;**
 2. **Ekonomia Sustatzeko Euskal Kontseilua**
 3. **Industria-lehiakortasuneko eragile anitzeko plataforma iraunkorra;**
 4. **Eusko Legebiltzarra.** Bertan, Eusko Legebiltzarreko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Batzordean (eta/edo, bidezkoa bada, Ogasun eta Finantza Batzordean) urtero Industrializazio Planaren barruko ekintzen jarraipen eta ebaluaziorako bilera monografiko bat egingo da. Bilera horretan EGLsko ordezkariak nahiz Planaren sustatzaile eta buruek parte hartuko dute.
- Lehentasuneko ardatz, ildo eta ekintzak berrikustea. Urteko hirugarren hiruhilekoan Planean biltzen diren jarduketa eta lehentasunak berrikusi eta alderatuko dira. Jarduera hori EGLSk, SPRIk eta EEEK egingo dute, Idazkaritza Teknikoaren (eta Ogasun eta Finantza Sailaren) laguntzarekin, eta sail arteko batzordean alderatuko da. Aldi berean, parte hartzen duten gobernu-sailen aurrekontuak egingo dira, eta gainera berrikuspen eta alderatze-jarduera horrek aurrekontuak egiteko dinamikaren atzeraelikadura jasoko du. Hala, hurrengo urtean garatu beharreko apustu eta lehentasunak identifikatuko dira.
- Amaierako txostena: Planaren iraunaldia hartuko du kontuan, eta ekintza-lerroen emaitzen balorazioa eta helburu estrategikoen eraginari buruzko ebaluazioa jasoko ditu.

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren jarraipen eta ebaluazio dinamikaren eskema



3.2.2. Aginte-taula estrategikoa

Industrializazio Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistematika hedatzeko, aginte-taula sinple bat definitu da. Hiru maila izango ditu, honako alderdi hauek neurtzeko: 1) Planaren garapenaren betetze-maila eta ahalegina; 2) sortutako jarduera zuzena; eta 3) ezarritako helburuak lortzeko egindako ekarpenak. Aginte-taula diseinatu da zehaztasuna, lautasuna eta garrantzia oinarritzko irizpide gisa hartuta.

1. Egikaritzearen eta ahaleginaren adierazleak. Planaren ardatz bakoitzari erreparatuta, hari lotutako ekintzen betetze-maila jakiteko aukera ematen dute, bai eta esleitutako baliabide ekonomikoak eta eragindako baliabide pribatuaren (halakorik balego) zenbatekoa ere. Adierazle horiek EGLSk kudeatu eta neurtuko ditu, Idazkaritza Teknikoaren laguntzarekin, eta planaren jarraipenerako sail arteko batzordean baliozkotuko dira.
2. Jarduera-adierazleak. Ardatz bakoitzari dagozkion ekintzek zuzenean sortutako jardueraren berri ematen dute. Esanguratsuenak diren jarduera-adierazleak hautatu dira, eta ahal izan denean, gaur egun jada dauden adierazleak erabili dira. Industrializazio Zuzendaritzaren kudeaketaren eguneroko jardunetik oso hurbil dauden adierazle horiek EGLSk neurtu eta interpretatuko ditu, Idazkaritza Teknikoaren laguntzarekin, eta planaren jarraipenerako sail arteko batzordean baliozkotuko dira.
3. Eraginaren adierazleak. Planaren ardatz bakoitzaren bidez Euskadiko enpresen nazioartekotzearen inguruko eremu batzuetan eragin nahi dugu, eta adierazle horien xedea eremu horien bilakaera zein den jakitea da. Jakin badakigu gure ekintzak, berez, eta lau urteko epean, inpaktu mugatua izango duela ezarri ditugun helburuak lortzeko bidean, baina beharrezkotzat jotzen dugu dagozkien eremuen bilakaera ezagutzea, hartara datu horiek interpretatzeko eta legealdian zehar gure plana ebaluatzeko eta egokitzeko. Adierazle gailenak hautatu dira, gure inguru erakunde ezagunek neurtuak (Eustat, INE, Eurostat...). Adierazle horiek EGLSk monitorizatuko ditu, Idazkaritza Teknikoaren laguntzarekin, eta planaren jarraipenerako sail arteko batzordean baliozkotuko dira, lehenago aipatu diren erakundeek argitaratutako informazioa oinarri hartuta.

2014-2016 aldiko Industrializazio Planaren jarduerari eta eraginari buruzko adierazleen aginte-taula

Ardatza	Jarduera-adierazleak	Eraginaren adierazleak
OROKORRA. Euskal industriaren lehiakortasuna indartzea mundu osoko merkatuan	<ul style="list-style-type: none"> • € industria-aurrekontua Eusko Jaurlaritza 	<ul style="list-style-type: none"> • Manufakturen industriaren pisua balio erantsi gordinean (%) • Industria-produkzioaren indizea (PI) • Lan-kostu unitarioa (lan-kostua/produktibitatea)
1. ARDATZA Krisi-egoeran dauden enpresak berriz egituratzea	<ul style="list-style-type: none"> • Bideratu Berria programaren bidez lagundutako enpresen kopurua • Luzaro programaren bidez partaidetza-kredituekin lagundutako industria-enpresen kopurua • Gauzatu Industria programaren bidez lagundutako proiektuen kopurua • AFI programaren bidez lagundutako industria-ETEn inbertsioko proiektuen kopurua • Eusko Jaurlaritzak parte hartuta kudeatutako arrisku-kapitaleko eta garapen-kapitaleko funtsen bidez, kapital gisa edo mailegu gisa lagundutako industria-enpresen kopurua (<i>Ezten, Ekarpen, Socade</i>) • Langileen partaidetza-funtsa duten lagundutako enpresen kopurua 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako langileen kopurua • Konkurtso-prozesua gainditzen duten enpresak (%) • Finantza-sistemak industria-sektoreari emandako kreditua (M€) • Industria garatzeko tresnen bidez (Gauzatu, Eusko Jaurlaritzaren inbertsio-funtsak, abal estrategikokoak) finkatutako lanpostuen kopurua
2. ARDATZA Industria-proiektu estrategiko berrietarako laguntza	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektu bultzatzaile estrategiko lagunduen kopurua • Industria-enpresak sortzeko proiektu lagunduen kopurua (<i>Ekintzaile</i>) • Lerro berriak garatzeko industria-proiektu lagunduen kopurua (<i>Barnekinzaile</i>-barne-ekintzailetza) • Hazi-kapital funtsaren bidez eta/edo bizkortze-programaren bidez lagundutako industria-enpresen kopurua • Kudeatutako eta erakarrirako atzerriko inbertsio zuzenen proiektuen kopurua • Ekonomia berdeko - offshore eta smart grid-en etorkizuneko esparruetan EEEn bidez lagundutako industria eta teknologia garapeneko proiektuen kopurua • Makina-erremintaren renove planaren bitartez lagundutako enpresen kopurua • Dibertsifikazio-estrategiei (bio, nano) lotutako patenteen kopurua 	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko Inbertsio Zuzenaren M€ Euskadiko industria-sektorean • Ekonomia berdeko - offshore eta smart grid-en etorkizuneko esparruetan sendotutako industria eta teknologia garapeneko proiektuen kopurua • Dibertsifikazio-estrategiei (bio, nano...) lotutako jardueretako guztizko enplegua
3. ARDATZA Industria aurreratua sendotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Manufaktura aurreratuko I+G enpresa-proiektu lagunduen kopurua • Kudeaketa-ereduei eta industria-diseinuari buruzko berrikuntza-programetan parte hartutako industria-enpresen kopurua • <i>Prointer</i> bidez lagundutako industria-proiektuen kopurua, kategorien arabera: esportatzaile berriak, esportatzaileak eta egoitza antzekoak • SPRIn eskaintzaren bidez kanpoan lagundutako industria-enpresen kopurua 	<ul style="list-style-type: none"> • Goi-mailako eta maila ertain-goiko teknologiako manufakturetako enplegua, manufakturetako guztizko enpleguarekiko (%) • Goi-mailako eta maila ertain-goiko teknologien esportazioak (M€) • Industria-enpresa berritzaileen % • Salmenta guztietatik merkatuan eta enpresan berriak diren produktuen salmentak -IUS adierazlea- (%) • Industria-enpresa esportatzaileen % eta enpresa horien esportazio-bolumena
4. ARDATZA Lehiakortasuna ezaugarri duen industria- eta energia-inguruabarra sortzea	<ul style="list-style-type: none"> • SPRILUREk eta Parke Sareak saldatutako edo alokatutako m2 kopurua • Energia aurrezteko eta efizientzia areagotzeko lagundutako proiektuen kopurua 	<ul style="list-style-type: none"> • Energiaren kontsumoa industria-sektorean


4. Eranskinak

4.1. “EUSKADI 2020” Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa

“EUSKADI 2020” **Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa** Eusko Jaurlaritzak enpleguarekin eta ekonomia berpiztearekin hartutako konpromisoari eman dien erantzuna da. Hainbat gauza barnean hartzen dituen programa da. Herri estrategia gisa taxutzen da, eta 2 multzotan garatzen eta zehazten da: **Enplegua Sustatzeko Plana** eta **Ekonomia Suspertzeko 4i Estrategia**. 4i estrategia apustu sendoa da, 5 urteko krisiaren ostean ahul dagoen enpresa-ehunari arnasa ematearen alde, eta enpresa-ehun horri laguntzearen alde, etengabeko eboluzioan dagoen ingurune lehiakor bati egokitzeko prozesuan. Ez gara hutsetik abiatu, iraganeko une batzuetan krisi sakonak gainditzeko lagungarri izan zaigun gizarte- eta ekonomia-eredu propio baten funtsezko ezaugarrietan ueste osoa daukagu. “Euskadi Eredu” hori gaur optimizatu nahi dugu, erronka globalei aurre egiteko, gure autogobernuaren ahalmenetan oinarrituta.

Horregatik, 4i Estrategiarekin gure etorkizunaren ardura hartu dugu, eta gure sustapen ekonomikoko politikak sendotu ditugu, funtsezkoak diren 4 lehiakortasun-faktoreren inguruan: **Berrikuntza**. Ezagutza sortzeko iturria da eta ezagutza hori balio ekonomiko eta gizarte-balio bihurtzen du. **Industrializazioa**. Industriaren aldeko gogoia berreskuratzea eta garapenaren eragile den ekoizpen-ekonomia adimendunari laguntza sendoa ematea dira industrializazioaren oinarriak. **Nazioartekotzea**. Arriskuak dibertsifikatzeko eta euskal enpresen lehiakortasun globala hobetzeko bermerik onena da. **Inbertsioa**. Lehiakortasunerako tresna da, I+G+b-ri bultzada emateko, teknologia eta ezagutza sortu eta transferitzeko, eta azpiegitura eta proiektu estrategikoak garatzeko.

2013-2016 aldiko X. Legegintzaldiko Gobernu Programan Pertsonekiko Konpromisoa garatzen duten ardatzak eta jarduketak-eremuak



4.2. 2014-2016 aldiko Industrializazio Planarekin lotutako Planen sintesia

Jarraian, Eusko Jaurlaritzako beste funtzio-arlo batzuen helburu eta planak laburtuko dira, 2014-2016 aldiko Industrializazio Planean duten eragina kontuan hartuta:

4.2.1. Enplegua Sustatzeko Programa 2014-2016

Ekonomiaren susperraldirako eta enplegurako erakunde arteko lankidetzeta eta enpleguaren aldeko ahalegin batura sustatzeko gogoaren barruan, Industrializazio Plana 2014-2016 aldiko Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programarekin lotzen da. Programa hori Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin du, Jaurlaritzako hainbat sailtako (besteak beste Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko) berrogeita hamarretik gora pertsonarekin lankidetzan.

Programa horren barruan 65 ekimen daude. Ekimen horiek, era berean, 6 programa operatibotan biltzen dira:

- ETE eta autonomoentzako finantzaketa;
- Ekintzailtzaren sustapena
- Gazte-enpleguaren sustapena;
- Enplegurako prestakuntza;
- Enplegurako elkartasun-funtsa;
- Etxebizitzak birgaitzeko RENOVE Plana.

Ekimen horiek garatzea batik bat Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ardura da, baina ekimen batzuk beste Sail batzuek garatuko dituzte, adibidez Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak. Sail horrek, SPRIrekin eta EEErekin batera, ETEentzako eta autonomoentzako finantzaketarekin edo ekintzailtzaren sustapenarekin lotutako ekimenetan esku hartuko du.

2014-2016 aldiko Enpleguaren aldeko Programako programa operatiboaren artean Industrializazio Planarekin loturarik zuzenena dutenak

ETE eta autonomoentzako finantzaketa	Enplegurako prestakuntza
<ul style="list-style-type: none"> • Arazorik handiena da gure enpresentzat. • 600 M €-ko finantzaketarako funts zirkulatzaile berria. • Funts horren zati bat zailtasunak dituzten enpresak birfinantzatzera bideratuko da; hala, langileek haien kapital-partaidetzak eskuratzeko aukera izango dute. • Neurri fiskalak aurrezki pribatua enpresetarantz bideratzeko. Oso garrantzitsua. Foru-aldundiekin landu beharrekoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Hau egiaztatzen da: Etorkizunean gehien eskatuko diren zereginak kualifikazio ertain eta handikoak izango dira. Aukera gutxi kualifikazio txikiko pertsonentzat. Prestakuntzaren aldeko apustua funtsezkoa da. • Esparru espezifikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako pertsonen birkualifikazioa. • Bigarren aukera, batez ere lan-merkatuan berriro sartzen diren emakumeak. • Minusbaliotasunen bat duten edo baztertuak izateko arriskua duten pertsonen laguntzea <p>Eraginkorrenak diren pertsona landuaz prestakuntza</p>

Iturria: 2014-2016 aldiko Enplegua Sustatzeko Programa, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

4.2.2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015

2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburu nagusia Euskadiko hazkunde ekonomikoa eta enplegua suspertzea da, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bitartez balio erantsi handiagoa sortuko duten jarduerak sustatuz. Ildo beretik, dibertsifikazio-estrategia zentzudunak garatzea bultzatuko da, EAEk industria-oinarriari eutsi ahal izateko baina balio erantsi handiko jarduerekin.

Gero eta gehiagotan aintzat hartzen da lurraldeek garapen estrategia propioak taxutu behar dituztela, eta lehiarako abantaila iraunkorrak sortu behar dituztela, haien baliabide, gaitasun eta ahalmen bereziak ustiatuz eta lan horretan kontuan izan behar dituztela teknologiaren eta baita merkatuen joerak. Eta pentsamendu hori lantzen da, hain justu, Europar sortu berri den eztabaida batean. Hain zuzen ere, eztabaida horren gaia 'espezializazio adimendunerako ikerketa eta berrikuntza estrategiak' dira (ingelesez RIS3 izenez ezagutzen dena).

RIS3 kontzeptu hori sortu zen, hain zuzen ere, ikusi zelako eskualde-gobernu askok inbertsio mimetikoak egin dituztela zientziaren, teknologiararen eta berrikuntzaren alor jakinetan, baina behar bezala kontuan izan gabe kasuan kasuko testuinguruaren pluraltasuna eta aniztasuna. Zera da eskatzen dena: eskualde mailako estrategia adimendunak behar dira eskualdeak dituen eta izan ditzakeen ekoizpen ahalmenekiko sinergia garbia duten alorretan espezializatzeko edo, hobeto esanda, kontzentratzeko eskualde baliabideak eta inbertsioak.


Kanpoko jakinduria ekartzeko enpresen eta gizartearen eskari horri erantzuteko, tipologia eta espezializazio askotako eragile zientifiko teknologikoen egitura aberats eta konplexua eraiki da azken hiru hamarkadetan Euskadin. Gaur egun, erronka nagusietako bat egitura horren kudeaketari ekitea da. Eragile batzuen eta besteen artean sinergia handiagoak lortu nahi dira, eta horrez gain sortu ahal diren bikoiztasunak desagerrarazi. Horregatik, helburua EAErentzat etorkizuneko RIS3 estrategia definitzea da, estrategia hori gai izan dadin gure ekoizpen sistemaren eta gure gizartearen transformazio beharrei gaur egun ere erantzuteko. Eusko Jaurlaritza buru duen estrategia horren xedea apurka eragile batzuk eta besteak erakartzea da, eragile bakoitza zeregin diferente batekin, baina helburu berbera izanik: nor bere lan esparrutik bere ekarpena egitea RIS3 garatu eta Euskadiko ekoizpen-sistema eraldatzeko eta, bide horretatik, epe ertain-luzera enplegua eta ongizatea lortzeko.

Lurralde estrategia bat eraikitzea prozesu bizia eta jarraitua da. Hori dela-eta, orain ez da planteatzen plan berri bat egitea, baizik eta 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana modu konstruktiboan berrikustea, inguruabar berrietara eta planean bertan ikusitako gabeziara moldatzea. Hala, berrikusitako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak legegintzaldi honen amaierara arte, 2016. urtearen amaiera aldera arte iraun ahal izango du.

RIS 3 prozesuaren helburu nagusia **produkzio-erlaldaketa laguntzea da, epe ertain eta luzera enplegua eta ongizatea sortzeko**. Horregatik, Euskadin lehenetsi beharreko arloak aukeratzeko kontuan hartu beharreko abiapuntuak irizpide batzuk ezartzen dira, esate baterako: Gaitasun zientifiko eta teknologikoen erabilgarritasuna; berrikuntzak aprobetxatzeko eta bere garapenean inbertitzeko gai den enpresa-sare lehiakorra; ezagutzan oinarritutako konponbideak emateko ahalmena jokoan dagoen erronkak artatzeko beharrezana edo laguntza-tresnen erabilgarritasuna (estrategiak, laguntza-programak, etab.)

Horregatik guztiarengatik, "Fabrikazio Aurreratua" Euskadin identifikatzen diren espezializazio adimenduneko metalehentasunetako bat da, hainbat alderdi oinarri hartuta. besteak beste zeharkako aplikagarritasuna, Euskadiren industria-tradizio nabarmena, enpresa-sektore anitzaren indar erlatiboa, eta fabrikazio-jarduerei lotutako errazte-teknologietako ahalmen zientifiko-teknologikoak.

Espezializazio adimendunaren metalehentasunak Euskal Autonomia Erkidegoan: FABRIKAZIO AURRERATUA



Iturria: "Euskadirentzako RIS3 Estrategia "bizi" baterantz", Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, 2013ko azaroa

4.2.3. Euskadiko Enpresa-nazioartekotzeko Plana 2014-2016 (Basque Country Estrategia)

Eusko Jaurlaritzak X. Legegintzaldian nazioartekotze arloko plangintzarako tresna gisa sustatzen duen “Basque Country Estrategia” edo Euskadi Nazioartekotzeko 2020 Esparru Estrategiaren xedea zera da, legealdi honetarako Kanpo Ekintzarako eta, bereziki, enpresak nazioartekotzeko ibilbide-orri bihurtzea, bai bata, bai bestea Eusko Jaurlaritzak indartu beharreko estrategia osagarriak baitira Euskadik nazioartean presentzia handiagoa izan dezan.

Bereziki, Enpresak Nazioartekotzeko Plana, Estrategia horren bi multzoetako bat den aldetik, euskal enpresak (bereziki ETEak) nazioartean txertatzeko eta beren lehiakortasuna hobetzeko diseinatu da, gaur egungo krisi egoeran beren ahalmen eta beharrianetara egokitutako laguntza-esparrua ezarriz, euskal enpresen irekitasuna eta nazioartekotasuna bultzatuz, kanpoko merkataritzan indartuz eta sendotuz, nazioarteko euskal ezarpenak areagotuz eta Euskadira kanpoko inbertsioa erakarriz.

Horrez gain, Enpresa Nazioartekotzeko Planak nazioartekotzea modu adimentsuan indartzeko politiken konbinaketa sustatzen du. Politika horiek euskal enpresa-sarearen lehiakortasunaren palanka eta indargarria izango dira, eta lagungarriak izango dira sektoreak, merkatuak eta arriskuak dibertsifikatzeko, bai eta Euskadin balio erantsia duen enplegua sendotzeko.

Jakitun gaude Eusko Jaurlaritzak eragin urria duela gure enpresak nazioartean txertatzeko, baina ez diogu horri uko egiten, eta gure jarduerarekin enpresa-sareari nazioarteko jokalekuan lehiakortasun-posizioa hobetzen lagunduko dioten egoera aproposak ezartzen eta portaera egokiak sorrarazten laguntzearen aldeko apustua egiten dugu, enpresa eta kategoria bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Planteatutako helburuak lortzeko, 2014-2016 aldiko nazioartekotze planean lehentasunezko jarduketarako ardatz estrategiko batzuk definitu ditugu: Hona hemen ardatz horiek:

- 1. ARDATZA Kanpo jarduerari laguntzeko sistema sendotzea eta bultzatzea
- 2. ARDATZA Laguntza nabarmena, euskal enpresak nazioarteko merkatuetan sartu ahal izan daitezen
- 3. ARDATZA Sektore eta klusterrei laguntza ematea, euskal ondasun eta zerbitzuek kanpoaldean duten posizioa indartzeko
- 4. ARDATZA Giza kapitala sortu eta dinamizatzea, nazioarteko merkatuetan sartzeko
- 5. ARDATZA Inbertsio estrategikoak atzitu eta sendotzea
- 6. ARDATZA Nazioarteko eta alde anitzeko finantzaketa eta lankidetzak

Guztira, 6 jarduketa-ardatz estrategiko eta identifikatutako 22 ekintza-ildo dira.

2014-2016 aldiko Nazioartekotze Planaren ardatzen eta ekintza-ildoen adierazpen eskematikoa

ARDATZ estrategikoa	Enpresa esportatzaile berriak	Esportazio-jarduera duten enpresak	Kokaleku anitzeko enpresak
Kanpo jarduerari laguntzeko sistema sendotzea eta bultzatzea	EUSKAL NAZIOARTEKOTZE PARTZUERGOA		
Laguntza berezia, euskal enpresak nazioarteko merkatuetan sartu ahal izan daitezen	GLOBAL LEHIAN (Web gogoeta) Hasiera Ezarpena Gauzatu ezarpena Enpresa eragileen homitzaileentzako laguntza Berariazko planak lehenetsunezko merkatuetan Sentsibilizazioa eta SPRIren aholkularitza Sentsibilizazioa, aholkularitza eta oinarritzko ganbera-zerbitzuak (EJ hitzarmena) Ordaindu beharreko SPRIren balio erantsidun zerbitzuak SPRI - SPRIren sare fisikoa eta aholkulari-sarea -		
Sektore eta klusterrei laguntza ematea, euskal ondasun eta zerbitzuak kanpoaldean duten posizioa indartzeko	EJ - GANBERAK HITZARMENA Enpresa-bidaia sektorialak (Elkartzen prog. eta Kluster hitzarmena) EJren Erakunde-bidaia eta erabakiak Alderantziko bidaien arreta Nekazaritzako elikagaien bidaia (Sub EJ) Ganberen bidaia (EJ hitzarmena)		
Giza kapitala sortu eta dinamizatzea	Nazioartekotze beka Global training Profesionalak lanaldi partzalean kontratatzea Global Basque Business Network		
Inbertsio estrategikoak atzitu eta sendotzea	INVEST IN THE BASQUE COUNTRY Atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko sistema SFDIN Proiektu Integralak "Aftercare" zerbitzuak		
Nazioarteko eta alde anitzeko finantzaketa eta lankidetzak	Finantzaketa aldeanitzeko erakundeei buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta aholkularitza Enpresa-nazioartekotzeko prozesuak finantzatzeko tresnak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren, eskutik (abalak eta finantza-laguntza)		

■ EJ-SPRI ■ Ganberak

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

4.2.4. Lotutako beste plan batzuk

Horrez gain, Gobernu Plan Estrategiko batzuen edo sail plan batzuen helburu eta neurriek gure industriaren lehiakortasunaren alderdi jakin batzuetan dute eragina. Hona hemen plan horiek:

- Ekintzaitza Babesteko Erakunde arteko 2013-2016 aldiko Plana (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila), bereziki barne-ekintzaitzari eta oinari teknologikodun enpresa berrien bultzadari dagokienez, bi eremu horiek baitira industria-jarduera berria garatzeko eta enplegua sendotu eta sorrarazteko ahalmenik handiena dutenak.
- Industrializazioaren arloarekin zati batean zerikusia duten beste gobernu-plan estrategiko batzuk dira Unibertsitate Plana edo Lanbide Heziketaren IV. Plan Estrategikoa. Biek giza kapitalaren garapen eta babesarekin dute zerikusia, enplegua sustatzea eta enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzea helburu izanik.
- Elikagai Industriaren Plana (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila), bereziki Euskadin trazio-eragina izan ahal duten nekazaritzako elikagaien industriako proiektuak erakartzeari eta babesteari dagokienez
- IV. Ingurumen Esparru Programak (2015-2018) ingurumen-konpromisoak Eusko Jaurlaritzako sailtako politiketan xertatu nahi ditu. Programa hori Industrializazio Planarekin lotzen da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak garatzen duen Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren bitartez.

4.3. Bibliografia

4.3.1. Datu-baseak

- AMECO (Europako Batzordea)
- Europako Banku Zentrala
- Eustat
- Eurostat
- Nazioarteko Moneta Funtza

4.3.2. Txostenak

- Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurrekontu-gidalerroak
- Euskadi Energía- 2008-2012 aldiko Energia Datuak, Energiaren Euskal Erakundea
- “Ikerketak Ekonomiaz I” Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzaren 2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planaren jarraipen-txostena
- Industria Garatzeko Zuzendaritzaren kudeaketari eta aurrekontuei buruzko informazioa
- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren 2013-2016 aldirako kudeaketa-plana
- X. Legegintzaldiko Gobernu Programa (2013-2016)
- Lehendakaritzak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, eta SPRIk emandako datuak